

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abenduaren 14a

108. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Berriobeitiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (25. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Berribeitiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Berribeitiko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Berribeitiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Irismena (5. or.).
- IV. Iritzia (5. or.).
 - IV.1. Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra (6. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
 - IV.3. 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoera (6. or.).
- V. 2010eko kontu orokorraren laburpena (9. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren 2010eko ekitaldiko betetze-egoera (9. or.).
 - V.2. Aurrekontuaren emaitza (10. or.).
 - V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria (10. or.).
 - V.4. Egoera-balantzea (11. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontua (12. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta aholkuak (13. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).

VI.2. Langileak (13. or.).

VI.3. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (15. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (16. or.).

VI.5. Inbertsioak (18. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).

VI.7. Hirigintza (21. or.).

Gehigarria. Berribeitiko Udalerriko Kontzejuen aurrekontu-egoera (21. or.).

1. koadroa. Kontzejuen 2010eko aurrekontuaren betetze-egoera (23. or.).

2. koadroa. Kontzejuen aurrekontuen zenbatekoak 2010ean (24. or.).

I. SARRERA

Comptos Ganberak Berribeitiko Udalaren Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskaturik eta 2011rako bere jarduera-programari jarraituz, Berribeitiko Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin du.

Berribeitiko Udalak 25,7 km²-ko azalera du; 10 kontzejuk osatutako udalerririk bat da; udalerririk herriburu administratiboa Berribeitiko kontzejuan dago. Azkeneko urteotan biztanleriaren berebiziko hazkundera izan du; 2001ean 1.278 biztanle zituen; 2010ean, berriz, 4.852 biztanle ditu; 2001ean baino hiru aldiz eta erdi gehiago, hain zuzen. Biztanle horiek udalerriko kontzejuetan banaturik daude, ondoko koadroan adierazten den bezala; hala ere, biztanleriaren ehuneko 55 Artikako kontzejuan bizi da.

Kontzejua	Biztanleak 2001	Biztanleak 2010
Aitzoain	254	389
Añezkar	90	207
Artika	447	2.659
Ballariain	15	18
Berriobeiti	202	644
Berriogoiti	104	704
Elkarte	20	21
Larrageta	35	81
Lotza	52	63
Oteitza	59	66

Udalak ez du sortu erakunde autonomorik bere kudeaketarako, eta zenbateko hauek zituen 2010eko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2010-12-31n
Udala	8.598.358	10.475.033	17

Kontzeju hauen guztien gastuak eta sarrerak 2,8 eta 0,8 milioioak izan dira 2010ean (Ikus Eranskina). Urte horretan 105.534 euro banatu zituen Udalak bere kontzejuen artean gastu arruntetarako eta zenbait inbertsiotarako.

2002an "Gestión Urbanística Berrioplano SA" sozietatea eratu zen, oso-osorik udalarena dena. Sozietate honek 60.121 euroko kapitala du; sortu zenez geroztik ez du inolako jarduerarik izan eta, 2003ko urrian inolako eraginik edo erabilera praktikorik gabe uztea erabaki zuen Udaltzatzen osoko bilkurak. 2011ko apirilean, Udaltzatzen Osoko Bilkurak sozietate hori desegitea erabaki zuen, horretarako likidatzaileak izendatuz, haren kapital soziala eta emaitzak udalaren 2011ko aurrekontuetan sartuz eta indarrean dagoen araudiak desegite hori gauzatzeko eskatzen dituen legezko izapide guztiak betez.

Udal honek ondoko mankomunitate hauetan hartzen du parte:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: Uraren ziklo integrala eta hiri-hondakin solidoen tratamendua eta eskualdeko garraioa.

b) Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Harrera Eta Orientabide Sozialerako Programa, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Programa eta Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arreta, Haurren eta Familiaren Arreta Programa eta Babestutako Enplegu Soziala.

Beste alde batetik, Berriozarko Udalarekin itun bat sinatu du Berriobeitiko biztanleek hango Musika Eskolara joateko eta hango instalazioetan kirol jarduerak egiteko aukera hango biztanleen baldintza berberetan izan dezaten. Orobat itun bat egin du Antsoaingo Udalarekin kirol-jarduerak egiteko.

Mankomunitatean eta itunduta dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko koadroan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2010ean
Eskualdeko garraioa	107.599
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	96.752
Berriozarko Udala – Musika-eskola	104.785
Berriozar eta Antsoaingo udalak – Kirol -jarduerak	6.784

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri direnak dira:

Zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea	Lagapena	Zerbitzu-kontratua	Beste TE batekiko ituna	Errenta-mendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X					
Musika-eskola					X	
Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa		X				
Autonomia pertsonala sustatzea		X				
Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta		X				
Haurren eta familiaren arreta		X				
Babestutako enplegu soziala		X				
Hirigintza	X			X		
Uraren ziklo integrala		X				
Hiri-hondakinak		X				
Eskualdeko garraioa		X				
0-3 urtekoen ikastetxea (2 eskola)			X			
Berribeiteko udal-kiroldegia			X			
Artikako udal-kiroldegia						X
Añezkarko pilotalekua (udalarena)	X					
Kirol-jardueren kudeaketa					X	
Kultura- eta euskara-jardueren kudeaketa	X					
Kirol- eta kultura-jarduerak				X		
Kontsumitzailearen udal bulegoa				X		
Ludoteka			X			
Liburutegia eta Kultur Etxea	X					

Toki-entitate honi aplikatzekoa den araubide juridikoa honako arau hauek osatzen dute, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutuaren Testu Bategina.
- Langileen Estatutuari buruzko 1/1995 Errege Lege Dekretuaren Testu Bateratua.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki erakundeei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.
- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta Tokiko Iraungarritasunerako Estatu Funtza sortu zuena.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabili-

tateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.

- Udalaren 2010eko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txosten honek sei atal ditu, sarrera hau barne hartuta. Bigarren atalean txostenaren helburuak azaltzen dira; hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren Kontu Orokorrari buruz dugun iritzia. Bosgarrenean, Berribeitiko Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Seigarren eta azken atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Azkenik, Eranskin bat sartu da Berribeitiko Udalerriko Kontzejuen aurrekontuen egoeraz.

Azterketa lana 2011ko urritik abendura bitartean egin du bi ikuskaritza-teknikarik eta kontu-ikuskatzaile batek osatzen zuten talde batek. Talde horrek Comptos Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan du.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Berribeitiko Udaltzatzen Osoko Bilkuraren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berribeitiko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txosten honen helburua honako puntu hauei buruz dugun iritzia adieraztea da:

a) Ea Berribeitiko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitu zen urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

b) Zenbateraino bete duen Udalak 2010ean izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.

c) Zein zen udalaren finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n.

Txosten honi, udalak ezarritako barne kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu dizkiogu.

III. IRISMENA

Comptos Ganberak Berribeitiko Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin du; kontu horrek osagai hauek ditu:

- Entitatearen beraren kontua: Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaizta, diruzaintza-gerakina, egoerabalentzea eta emaitzen kontua.

- Kontu Orokorraren eranskinak: Alkatearen memoria, zorraren egoera, kostuen memoria eta kontu-hartzailetzaren txostena.

- Gestión Urbanística Berriplano SA sozietatearen urteko kontuak –sozietatea toki entitatearena da oso-osorik eta desegiteko prozesuan dago–.

Lan hau Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapena edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz osatu da; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak berrikusteko teknika erabili dira.

Zehazki, Udalarri dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia eta aplikatu diren oinarrizko prozedura administratibok aztertu dira; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak ere aztertu dira.

Udalaren 2009ko kontu orokorren ikuskaritza bat egin zuen kontu-ikuskaritza pribatu batek, eta aldeko iritzia eman zuen, ondasunen inbentario bat eta Udalaren eta kontzejuen artean egindako eragiketen dokumentu-euskarririk ez zuelako salbuespenak eginez, batez ere.

Kontzejuei dagokienez, 2010ean izan duten aurrekontuen eta finantzen egoera komentatzea izan da batez ere egiteko.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenari dagokion beazala, Berribeitiko Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea eta

kontuaren beraren edukia ere, udalaren ardura dira, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2010eko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalak ez du ondasunen inbentariarik, baina 2002az geroztik ondasun-gehitze guztiak erregistratzen eta kontrolatzen dira.

Goiago aipatutako salbuespena alde batera utzita, Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra zehazki jasotzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egin diren eragiketen emaitzak. Halaber, hura egoki interpretatzeko eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, informazio finantzario publikoari dagokionez aplikatzekoa den arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, erakunde honen jarduera ekonomiko eta finantzarioa,

oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin da. Hala ere, ez dira bete langileen kudeaketari eta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudiak egiten dituen zenbait zehaztapen.

IV.3. 2010eko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

Hasierako aurrekontuan –2010eko maiatzean onartu zen–, 5,8 milioi euroko gastuak eta sarrerak ageri ziren; geroago zenbateko hori ehuneko 64 aldatu zen –3,7 milioi euro–, aurrekontuan aldaketak eginez. Aldaketa horiek gastuetan –inbertsioen kapituluaren– eta sarreretan –kapital-transferentzien aurreikuspen handiagoak eginin– inbertsio errealeen besterentzeagatik eta aurreko ekitaldiko diruzaintza-gerakina aplikatzeagatik justifikatzen dira.

Aitortutako betebeharrak 8,6 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 90eko betetze-maila izan dute. Aitortutako eskubideak 10,5 milioi eurora iristen dira; ehuneko 110ean bete dira; portzentaje handi horren esplikazioa zorpetze berria –5,77 milioi euro– lortu izana da, hasieran 0,8 milioi euroko zorpetzea baizik ez baitzegoen pentsatuta.

Koadro honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	9	Tributu bidezko diru-sarrerak	29
Bestelako gastu arruntak	33	Transferentziak	14
Inbertsioak	57	Ondare bidezko diru-sarrerak	2
Finantza-zama	1	Zorpetzea	55
	100		100

Hona Udalaren 2010erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2009koarekiko konparazioa:

	2009	2010
Aitortutako betebeharrak	4.958.246	8.598.358
Likidatutako eskubideak	5.928.975	10.475.033
Gastu arruntak (1etik 4ra)	3.751.740	3.714.633
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	3.751.740	3.695.808
Kapital-gastuak eta finantza-eragiketenak (6tik 9ra)	1.206.506	4.883.726
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	3.633.860	3.736.124
Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6tik 9ra)	2.295.115	6.738.909
Aurrekontu-emaiza doitu	- 504.588	- 125.025
Aurrezki gordina	-117.879	40.317
Finantza-zama	0	18.825
Aurrezki garbia	- 117.879	21.492
Zorpetze-mailaren (%)	0	0,5
Zorpetze-muga (%)	- 3,24	1,08
Zorpetze-ahalmenaren (%)	-3,24	0,58
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.331.161	3.251.832
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	- 197.683	- 334.223
Zor bizia	0	5.773.000
Zor bizia/diru-sarrera arruntak, %	0	155
Biztanle bakoitzeko zor bizia	0	1.190

2010ean Berriobeitiko Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 73 gehiago gastatu zuen; gastuaren gorakada hori Artikako kiroletarako instalazioetako obrak egiteko inbertsioetan egindako gastu handiagoak esplikatzeko du: ehuneko 353 gehiago -1,1 milioitik 4,9 milioi euro izatera-.

2010eko sarrera ehuneko 77 hazi dira, aipatutako inbertsio horiek finantzatzeko maileguak hartu direlako batez ere.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko bateko urritzea izan da; eta diru-sarrera arruntetan, aldiz, ehuneko hiruko hazkuntza.

Aurrekontuaren emaitza doitu -0,13 milioikoa da; aurreko urtean ere emaitza negatiboa izan zen: -0,5 milioi euroko.

2010ean bai aurrezki gordina bai aurrezki garbia positiboak izan dira biak, ez aurreko urtean bezala, aurrekoan negatiboak izan baitziren.

Zorpetze-maila ehuneko 0,5koa da, eta ehuneko 1,08 da muga: beraz, Udalak ehuneko 0,58ez zorpetzeko ahalmen ekonomiko urria du oraindik.

Diruzaintza-gerakina osoa ehuneko 144 hazi da 2010ean, 2009ko urtekoarekin alderatuz, eta 3,3 milioi eurokoa da; gastu orokorretarako gerakina, ordea, negatiboa da urte honetan ere, eta ehuneko 69 handitu da.

Epe luzerako zorra 5,8 milioi eurokoa da; 2009an, berriz, ez zegoen horrelako zorrik; zor hau -biztanle bakoitzeko 1.190 euroraino iristen dena- erakundearen diru-sarrera arruntan ehuneko 155 da, legeak jartzen duen ehuneko 75eko portzentaje-muga baino askoz ere handiagoa, eta horrek ez du uzten, gaur egun, zor gehiago egiteko aukerarik. Zor hori bi finantza-erakundetatik hartutako bi mailegutatik⁽¹⁾ -5 milioi euro- eta gainerakoa Artikako Kontzejuak emandako aurrerapen batetik dator⁽²⁾, eta Artikako kirol-instalazio berriak finantzatzeko xedatu da. Aurrezpen gordina 2009an negatiboa izan zen, zor hau egiteko Nafarroako Gobernuaren baimena behar izan zen eta, horrez gainera, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2010ean saneamendu-plan bat onartzea ere bai, udalaren 2011 urterako eta hurrengoetarako aurrekontuetan dirua aurrezteko neurriak hartuz. Neurri horiek gastu arruntak mugatzeari eta lurraren kontribuzio-tasa handitzeari dagozkio batez ere, eta

(1) Mailegu hauek 20 urterako hitzartu dira, bi urteko ezaldi batekin

(2) Hitzartutako aurrerapenaren zenbatekoa milioi baterainokoa bazen ere, 0,8 milioi euroko aurrerapena baizik ez zen egin. Jarri ziren baldintzen arabera, bost urtean itzultzekoa da, interesik gabe, eta Artikako kirol-instalazio berrietako obrak finantzatzeko beste ezertarako ezin da erabili.

400.000 euro inguruko aurrezpena edo gastu-urritzea eragin dute 2011n.

Ondorio gisa, beraz, eta azken laburpen bezala, zor handia izatea, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin negatiboa izatea eta, ekipamendutan inbertsio handi bat egin izanagatik, aurrezpen-maila oso apala izatea dira Berriobeitiko Udalaren 2010eko finantza-egoeraren ezaugarri nagusiak.

Kudeaketaren ikuspegitik, langileen alorrak kudeaketa- eta kontrol-sistema egoki bat jartzeko balioko duten neurri pilatxo bat hartu beharra du.

Ekonomia, oro har, eta eraikuntzaren sektorea bereziki, pairatzen ari den krisi-egoerak, Nafarroako udalen artean banatzeko transferentzien zenbatekoari dagokionez ikusten ari diren zalantzek, instalazio berrien funtzionamendu-gastuek eta udalak, bere zor-bolumenaren ondorioz, etorkizunerako duen finantza-kargak are larriagoa bihur dezakete udalaren finantza-egoera. Horregatik, Udalak bere gastu arruntak urritzeko eta baliabide arruntak sortzeko gaitasuna handitzeko duen saneamendu-planean aurreikusita dituen neurriak aplikatzen jarraitu beharko luke, gure iritzian; tarifak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzea, egiteko inbertsioei lehentasuna ematea, dirulaguntzetarako politika berrikustea, zenbait zerbitzuren tamaina aztertzea, ematen dituen eta nahi-

taezkoak ez diren zerbitzuek beren burua finantzatzea eta bere kontzejuekiko finantza-harremanen kudeaketa hobetzeko neurriak hartzea ahaztu gabe, hala ere.

Ganbera honen iritzian, gogoeta egin beharko litzateke orobat Berriobeitiko udalerraren egitura konposatuaz –udal bat eta 10 kontzeju–, egitura horrek gaur egun kudeaketa publiko eraginkor eta kalitate oneko batek dituen eskakizunei eta eskualde-mailako lurralde-antolamendu egoki bati erantzuten dien aztertzeke. Gure iritzian egitura konposatu hori aldatu behar ez ote den aztertu beharko litzateke, beste aukera hauek ere begiratu, besteren artean:

a) Kontzeju horiek iraungi eta leku bihurtzea eta, era horretan, Udal soila bihurtzea.

b) Kontzejuak juridikoki mantentzea, baina beren eskumen guztiak Udalari utzirik.

Prozesu honek biztanleen adostasuna behar du, jakina.

Eta, azkenik, kontzejuen kontuak, informazio gisa, atxikita dauden Udalaren Kontu Orokorraren barruan eranskin berezi bezala sartu beharko litzateke kontzeju horiek, gure iritzian. Horretarako, hain zuzen, indarrean dagoen legedian behar diren erreformak egin daitezela aholkatzen diegu Nafarroako agintari publikoei.

V. 2010eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

V.1. AURREKONTUAREN 2010eko EKITALDIKO BETETZE-EGOERA.

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena
1.Langile-gastuak	891.056,15		891.056,15	809.873,64	91	801.749,43	8.124,21
2.Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	2.441.561,18	22.251,68	2.463.812,86	2.355.394,58	96	2.153.364,85	202.029,73
3.Gastu finantzarioak	28.000,00		28.000,00	18.825,00	67	18.825,00	
4.Transferentzia arruntak	560.302,30	49.177,64	609.479,94	530.539,40	87	274.181,24	256.358,16
6. Inbentsio errealak	1.775.076,07	3.656.355,74	5.431.431,81	4.877.595,22	90	2.780.170,38	2.097.424,84
7. Kapital-transferentziak	105.000,00		105.000,00	6.130,55	6	6.130,55	
Guztira	5.800.995,70	3.727.785,06	9.528.780,76	8.598.358,39	90	6.034.421,45	2.563.936,94

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobratzeke dagoena
1.Zuzeneko zergak	1.957.255,00		1.957.255,00	1.972.475,84	101	1.892.448,20	80.027,64
2.Zeharkako zergak	450.000,00		450.000,00	177.447,62	39	146.966,87	30.480,75
3.Tasak eta bestelako diru-sarrerak.	894.355,88		894.355,88	862.333,67	96	837.302,06	25.031,61
4.Transferentzia arruntak	689.179,27		689.179,27	700.104,49	102	683.658,75	16.445,74
5.Ondare bidezko diru-sarrerak	24.420,00		24.420,00	23.762,53	97	23.762,53	
6.Inbentsio errealak besterentzea	660.564,91	1.257.303,08	1.917.867,99	151.151,00	8	151.151,00	
7.Kapital transf.	335.220,64	941.637,40	1.276.858,04	814.758,32	64	484.660,95	330.097,37
8. Finantza-aktiboak		1.528.844,58	1.528.844,58				
9. Finantza-pasiboak	790.000,00		790.000,00	5.773.000,00	731	5.773.000,00	
Guztira	5.800.995,70	3.727.785,06	9.528.780,76	10.475.033,47	110	9.992.950,36	482.083,11

V.2. AURREKONTUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	10.475.033,47	5.928.975,44
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	8.598.358,39	4.958.245,72
= AURREKONTUAREN EMAITZA	1.876.675,08	970.729,72
DOITZEAK		
- Finantza-ketaren desbideratze positiboa G.F.A.	3.349.079,00	1.773.394,23
+ Finantza-ketaren desbideraketa negatiboa G.F.A.	1.347.378,63	77.202,94
+ Diruzaintza-gerakinaz finantzaturiko gastuak	0	220.873,36
= AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	-125.025,29	-504.588,21

V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	1.360.986,44	350.014,82
+ Diru-sarreraren aurrek: aurtengo ekitaldia	498.226,08	181.216,12
+ Diru-sarreraren aurrek: Itxitako ekitaldiak	304.143,08	290.718,11
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	836.986,42	142.426,34
+ Ordainketen itzulketak	61,42	0,00
- Nekez kobratzeko eskubideak	269.308,33	255.547,51
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	9.122,23	8.798,24
- ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK	2.972.562,45	871.217,56
+ Gastu-aurrek.: aurtengo ekitaldia	2.563.936,94	793.366,16
+ Gastu-aurrek.: Itxitako ekitaldiak	25.214,45	25.214,45
+ Diru-sarreraren itzulketa	16.142,97	166,36
- Aplikatzeko dauden gastuak	504,68	25,60
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	367.772,77	52.496,19
+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	4.738.337,62	1.775.161,12
+ FINANTZIAZIOKO DESBIDERATZE METATU NEGATIBOAK	125.070,52	77.202,94
= DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA	3.251.832,13	1.331.161,32
Finantza-keta atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	3.586.055,24	0,00
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0,00	1.528.844,58
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-334.223,11	-197.683,26

V.4. EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA

AKTIBOA	2010	2009
IBILGETUA	23.346.979,04	19.177.543,56
Ibilgetu materiala	11.622.678,48	7.544.267,87
Ibilgetu ez-materiala	271.085,96	273.297,66
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	10.818.726,02	10.725.489,45
Herri-ondasunak	634.488,58	634.488,58
ZIRKULATZAILEA	6.573.160,27	2.574.335,15
Zordunak	1.639.417,00	614.360,57
Finantza-kontuak	4.738.842,30	1.775.186,72
Aplikatzeke dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	194.900,97	184.787,86
AKTIBOA, GUZTIRA	29.920.139,31	21.751.878,71

PASIBOA

PASIBOA ETA GARBIA	2010	2009
FUNTS PROPIOAK	21.164.949,95	20.871.837,31
Ondarea eta erreserbak	19.442.853,34	19.627.641,20
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0,00	0,00
Kapitaleko diru-laguntzak	1.722.096,61	1.244.196,11
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	5.773.000,00	0,00
Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	5.773.000,00	0,00
EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	2.982.189,36	880.041,40
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.973.067,13	871.243,16
Aplikatzeke dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	9.122,23	8.798,24
PASIBOA ETA GARBIA, GUZTIRA	29.920.139,31	21.751.878,71

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKO		
DESKRIBAPENA	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa, 2009	DESKRIBAPENA	Zenbatekoa, 2010	Zenbatekoa, 2009
60 Erosketak			70 Salmentak	720.584,71	674.827,67
61 Langile-gastuak	811.019,20	835.058,95	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	126.569,17	84.400,13
62 Gastu finantzarioak	18.825,00	0	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	1.379.431,0	1.573.105,13
63 Tributuak	1.334,80	1.334,80	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	468.383,11	446.645,15
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak	2.352.914,22	2.368.866,12	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	725.167,31	684.335,86
			77 Kapitalaren gaineko zergak	302.109,30	185.796,56
67 Transferentzia arruntak	530.539,40	546.480,10	78 Bestelako diru-sarrerak	350.737,32	22.845,32
68 Kapital-transferentziak	6.130,55	129.803,95	79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa	557.008,74	0			
800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	0	0	800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	204.789,94	209.588,10
GUZTIRA	4.277.771,91	3.881.543,92	GUZTIRA	4.277.771,9	3.881.543,92

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKO		
AZALPENA	2010	2009	AZALPENA	2010	2009
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	204.789,94	209.588,10	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	8.921,23	29.808,60
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Ixhitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	5.008,36	84 Ixhitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	967,74	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	0	89. Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	194.900,97	184.787,86
GUZTIRA	204.789,94	214.596,46	GUZTIRA	204.789,94	214.596,46

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA AHOLKU- AK

Ondoren, kudeaketa arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, udalaren antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko, gure iritzian udalak bere egin behar dituen ondorio eta aholku nagusiak azalduko ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2010eko ekitaldiko aurrekontuari 2010eko maiatzean eman zitzaion behin betiko onspena.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina bere balioaz gainetik puztuta dago, 69.633 euroz; horregatik, kopuru hori goituz gero 403.856 euro baino gutxiagokoa izango litzateke. Balioaren puzte hori finantzaketaren desbideraketa negatibo metatuen kuantifikazioak eragina da.

Udalak ez du ondasunen inbentariarik, eta ondasun guztiak ere ez daude eskritoretan jasota eta erregistratuta. Une honetan egiten ari da inbentario hori; baina zenbait ondasunen jabea Udala bera ala kontzejuak diren zehaztu behararren arazoa topatu da.

“Gestión Urbanística Berrioplano SA” 2002 urtean sortu zenetik inolako jarduerarik izan ez duena, desegiteko prozesuan aurkitzen da.

Gure aholkuak:

- *Urteko aurrekontua dagokion ekitaldia hasi baino lehen onestea, era horretan udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariorako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Behin ondasunen jabetza argitzen denean, udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea.*

- *Udal-ondasunen eskrituratze- eta erregistratze-prozesua burutzea.*

- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutzea eta aplikatzea.*

- *Hirigintza kudeatzeko udal sozietatea desegiteko prozesua burutzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen kapituluaren aitortutako betebeharrak 0,8 milioi euro egiten dute; alegia, 2010eko ekitaldian sorrarazitako gastu guztien ehuneko 9 eta gastu arrunten ehuneko 22.

Ondoko koadro honetan gastu hori artikuluz artikuluz banatuta eta aurreko ekitaldikoarekin alderatuta agertzen da:

Artikulua	2009an aitorturiko betebeharrak	2010ean aitorturiko betebeharrak
Goi-karguak	47.849	47.657
Funtzionarioak	144.239	138.151
Langile-kontratudunak	377.459	366.552
Enplegu-emailearen kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	265.392	257.514
Langileak, guztira	834.939	809.874

2009ko emaitzekin alderatuta, ehuneko 3ko beherapena izan da kapitulu honetan, 12/2010 Foru Legearen aplikazioz langileen lansarietan izandako beherakadagatik batez ere.

Udalaren 2010erako plantilla organikoa urte horretako apirilean onartu zen; 18 lanpostu sar-

tzen dira plantillan; horietatik 7 hutsik daude, lanpostu guztien ehuneko 39, alegia.

Hala, 2010eko abenduaren 31n 17 pertsona ari ziren lanean Udalean, honela banatuta:

	Kopurua
Langileak	
Funtzionarioak	3
Lan-kontratudun finkoak	8
Aldi baterako lan-kontratudunak	5
Administrazio-kontratupekoak	1
Guztira	17

Aipatu den aldi baterako lan-kontratudunek plantillan hutsik dauden lanpostuetako sei betetzen dituzte.

2009ko abenduan lanean ziharduten pertsonen alderatuta, kopuru bera dago 2010ean ere.

Egin dugun azterketatik honako hau nabarmentzeko dugu:

- Lanpostuak eta haiei dagozkien eginkizunak ongi definituta ez egoteak disfuntzio batzuk eragiten ditu, administrazioaren alorrean batez ere, maila desberdinetako pertsonak ari baitira eginkizun berberak betetzen.

- Langileen espedienteak ez daude osatuta, eta langileen bizitza administratiboan nominan eragina duten oinarrizko dokumentuak falta dira (kontratua, antzinasunaren aitortpena, mailaz jasotzeak, lanaldi-laburpenak...). Egoera horrek asko zaildu digu, gainera, nominak berrikusteko lana.

- Nominak kanpoko enpresa batek kudeatzen ditu, eta hileroko aldaketak egiaztatzerako mugatzen da udal zerbitzuek egiten duten kontrola.

- Plantilla organikoak atxikita daraman langileen zerrendan ikusten denez, badira aldi baterako kontratatutako hiru pertsona udalean 1991, 1993 eta 1997az gero lanean dihardutenak, desberdinak elkarren segidan kontratu mota eginez. Espedienteetan ez da agertzen pertsona horiek kontratatze-ko erabilitako hautaketa-prozedurarik. 2007an eta 2009an kontratatutako aldi baterako langileak aukeratzeko erabilitako prozedura ere ez da ageri.

- Noizean behin aldi baterako egiten diren kontratazioetan Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zerrendetara jotzen da, baina udaleko erroldan sartuta egotea jartzen da baldintza bezala; baldintza horrek, ordea, kontratazio publikoaren oinarrizko printzipioak urratzen ditu, gure iritzian. Horrez gainera, kontratatu den pertsona zerrendan duen lekuagatik kontratatu delako zurigarria ez da beti agertzen.

- Lan kontratupeko langileei aplikatzen zaien ordainketa-sistema ez dago inolako hitzarmen kolektibori lotuta; horrek justifikaziorik ez duten desberdintasun egoerak eta segurtasunik eza sor dezake langileengan.

- Langileei ordaindutako nominak aztertzean akatsak aurkitu ditugu kalkuluetan, familiarentzako laguntzari, antzinasunaren aitortpenari, lanaldi laburtuari eta gizarte-kuoten kalkuluari dagokienean batez ere.

Laburtuz, bada, Udalaren langileen kudeaketari dagokionez, albait lasterren neurriak hartu behar

dira, gerorako utzi gabe, legezkotasun, gardentasun, kontrol eta gobernu zuzeneko printzipioak nagusi izango diren sistema bat ezartzeko.

Beste alde batetik, udalbiltzarkideek 46.776euro jaso dituzte 2010eko ekitaldian zehar, ordainsari gisa. Ordainsari horiek 2007ko Udaltzaren Osoko Bilkura batean ezarri ziren eta era honetan banatzen dira:

- Alkatea: 1.753 euroko ordainsari bat jasoko du hileroko, bere kargua betetzeko lanak eragindako gastuen kalte-ordain gisa.

- Gainerako zinegotziak: Osoko Bilkuran parte hartzea, saio bakoitzeko 100 euro; laneko bileretan parte hartzeagatik, 30-60 euro bitartean, bileraren luzeraren arabera.

2011ko urriko Osoko Bilkuran, ordea, udalbiltzarkideentzako ordainsari-sistema hori aldatu egin zen, eta beste era honetara aldatu zen:

- Alkatea: Hilean gutxienez 60 ordu egin beharreko lanaldi laburtua ezartzen zaio alkatezarako, eta 21.035 euroko ordainsaria izendatzen zaio; zenbateko horretan lanagatik izan ditzakeen gastu guztiak sartzen dira, eta gizarte-asegurua Udalaren kontura da.

- Gainerako zinegotziak: Osoko bilkuretan eta laneko bileretan parte hartzeagatik hileko gehieneko kopurua, zinegotzi bakoitzeko 200 eurotara mugatzen da.

Azkenik, udal honek ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituen betetzen duela egiaztatu dugu. Ordainsarien murrizte hori, 10.580 eurotan begiz joa, 2009ko diruzaintza-gerakin negatiboa murrizteko erabili da.

Gure aholkuak:

- *Langileen gaiak kudeatzeko eta kontratatze-ko politikaren berrikusketa sakon bat egitea eta behar diren kontrol-mekanismoak ezartzea, horretarako administrazio espedienteak eska daitekeen dokumentazio zehatz guztiarekin prestatuz eta lan-kontratupeko langileen ordainketak bertako hitzarmen kolektibo bati edo Nafarroako Gobernu-ko hitzarmen kolektibo orokorrari lotuz.*

- *Langileei ordaintzeko kontzeptuen azterketa, berrikusketa eta, behar izanez gero, arautzea egitea.*

- *Aldi baterako langileen egoera erregularizatzea.*

- *Plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak eguneratzea edota egiaz dauden premietara egokitzea.*

- *Indarrean dagoen araudiaren baitan, aurrekontuetan zuzkidura berezia duten eta hutsik dauden lanpostu guztiak enplegu-eskaintza publikoan sartzea.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Gastu arrunten eta zerbitzuen gastuak 2,4 milioi eurokoak izan dira 2010ean, eta haien ehuneko 96 bete da. Gastu horrek Udalaren gastu guztien ehuneko 27 eta haren eragiketa arrunten gastuen ehuneko 64 hartzen du. 2009 urtearen aldean, ehuneko bat jaitsi da.

Kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, behar diren fakturekin justifikatuta daudela eta aplikatzen den araudia arrazoiz errespetatu dela egiaztatzen da. Hala eta guztiz ere, ordea, laguntza tekniko-

ko zerbitzu batzuek izan duten gastu-bolumena kontuan harturik, zerbitzuak gutxienez lau urte iraun duenez, kontratazio-prozedura bat beharko zatekeen horretarako.

Gure aholkuak:

- *Urteko gastuen bolumena aldez aurretik balioets daitekeen kasuetan, dagozkion kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

Udalaren haur-eskolen kudeaketa –Artikan eta Berriogoitin daude– eta haien jantoki-zerbitzua enpresa batekin egindako kontratu batez eta Nafarroako Gobernuarekin egindako finantzaketa-itun batez araututa dago. 2010ean kontratu horrek 437.493 euroko gastua esan nahi izan du, guztira; zenbateko horrez gainera, Udalak zerbitzu horren esleipena duen enpresari emandako zuzeneko diru-laguntza izenduna gehitu behar zaio: 65.565 euro (Ikus VI.4. atala): beraz, zerbitzu horren gastua 503.058 eurokoa izan da Udalarentzat. Haur-eskolak portzentaje hauen arabera finantzatzen dira, azken finean:

Erakundea	%
Familiak	41
Nafarroako Gobernua	30
Udala	29
Guztira	% 100

Azkenik, Berriobeitiko Udalaren kirol-instalazio nagusiak eta haiek kudeatzeko modua aipatzen ditugu:

a) Berriobeitiko kirol-instalazioa; zerbitzu hauek ditu: Igerileku girotua, alderdi berezituekin (jostaketarako/igerirako lekua, Spa, Jacuzzi, izotz-iturria, sauna, lurrun-bainua, erromatar tema eta zikloi-dutzak), giharrak eta bihotza lantzeko gela,

kanpoko bi igerileku (jostaketarako eta txipli-txaplakoa), polikiroldegi-pista estali gabea, belardia, haurrentzako parkea eta askalategi/barbakoa) Estali gabeko instalazioen ondoan dauden instalazio estaliak 2008ko otsailean inauguratu ziren.

2010ean 1.783 abonatu ditu; ondoko koadroan zehazten da zein lekutakoak diren abonatu horiek:

Udala	%
Berriobeiti	86
Iruña	6
Iruñerriko beste udal batzuk	8
Guztira	% 100

Mantenimendu-, garbiketa-, sorospen- eta ate-zaintza-zerbitzuez arduratzeko laguntza-kontratu batez kudeatzen da; 401.565 euroko kostua izan zuen Udalarentzat 2010ean. Horrez gainera, kontratu horren arabera, Udalak bere gain hartzen ditu zuzenean instalazio horietako elektrizitate, ur, gas eta aseguru gastuak; kontzeptu horiek 144.000 euroko gastua eragin zioten 2010ean.

Instalazio horiek erabiltzeagatik izandako diru-sarrerak 388.112 eurokoak izan dira 2010ean; beraz, gastuen ehuneko 71 estaltzen da modu horretan.

Udala	%
Berriobeiti	24
Iruña	56
Iruñerriko beste udal batzuk	20
Guztira	% 100

Instalazio hau zeharbidez kudeatzen da, errentamendu-kontratu baten bidez; errentariak 90.000 euroko kanon bat gehi, halakorik bada, etekinen portzentaje bat ordaintzen dio Udalari.

c) Añezkarko pilotalekua. Pilotaleku estalia, kontrakantxa handitua duena, kirolerako pista gisa erabiltzeko. Sarrera libreko instalazio bat da.

d) Horiez gainera badira beste sei pilotaleku tradizional, kontzejuen jabetzakoak.

Instalazio multzo honek garbi erakusten du, berriro, nolako ekipamendu-atomizazioa dagoen Iruñerrian, eskualde mailako planifikaziorik izan ez delako; eta garbi ikusten da, orobat, epe ertainera edo luzera finantza-arazoak izan daitezkeela ekipamendu horiei iraurarazteko.

b) Artikako kirol-instalazioa. Zerbitzu hauek ditu: igerileku girotua, jolaserako alde berotu batekin, spa, taberna-jatetxea, Txiki park, beauty spa, fitness gela, erabilera askotarako gelak, kanpoko igerilekua, alde berezituarekin (jostaketarako, harkaitzak, txirristak, igeria, relax eta txipli-txapla), erretegiak eta berdegunea. 2011ko abuztuan zabaldu ziren jendearentzat.

2011 bukaera aldean 8.266 abonatu ditu; hauek dira abonatu horien jatorriak:

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Aitorturiko transferentzia arruntak -0,5 milioi euro- aitortutako betebeharraren ehuneko 6 izan dira, eta ehuneko 87ko betetze-maila izan dute. Kapital-transferentziak -6.131 euro- aitortutako gastu guztien ehuneko 0,1 izan dira, eta oso aitorten-maila apala izan dute, ehuneko 6.

Kapital-transferentzien aitorten-maila apal hori Kontzejuetan obrak finantzatzeko kontusailak ia batera burutu ez direlako justifikatzen da.

Ondoko koadro honetan gastu hori hartzailez hartzaile banatuta eta aurreko ekitaldikoarekin alderatuta agertzen da:

	2009an aitorturiko betebeharrak	2010ean aitorturiko betebeharrak	2010/2009 ald. ehunekotan
Estatuko Administrazio Orokorrari	1.785	1.034	-42
Foru Komunitateko Administrazio Orokorrari	5.661	6.853	21
Toki entitateei	120.922	115.237	-5
Mankomunitateei	182.007	204.351	12
Kontzejuei	100.000	100.000	0
Enpresa pribatuei	32.612	68.117	209
Familiei	11.029	10.466	-5
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	92.465	24.481	-74
4. Transferentzia arruntak	546.480	530.539	-3
Kontzejuei	129.804	5.534	-96
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	0	596	
7. Kapital-transferentziak	129.804	6.131	-95

2010ean transferentzia arruntez egindako gastua 2009an izandakoa baino ehuneko 3 txikiagoa da. Kontzeptuz kontzeptu bereizirik, enpresa pribatuei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei egindako transferentzietan izan da alderik handiena –enpresa pribatuenak bikoiztu egin baitira 2010ean eta irabazi-asmorik gabeko erakundee-nak ehuneko 74 urritu baitira, hirugarren mundua-
rentzako diru-laguntzak urritu direlarik–.

Enpresa pribatuei egindako transferentzietan ikusten den aldea 2006az gero udaleko bi haur-
eskolak kudeatzen dituen enpresari ordaintzeko
gastua bikoiztu egin delako gertatzen da batez
ere. 2007an Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskola
horiek kudeatzen zituen enpresari urtero diru-
laguntza bat ematea erabaki zuen, enpresa horre-
tako langileen soldatak osatzeko; laguntza hori ez
dago espresuki jasota eskola horien kudeaketa

kontratatzeko prozeduran; 2010ean 65.565 euro-
raino jaso da zuzeneko diru-laguntza hori.

Kultura, kirol eta gazteentzako jardueretarako
diru-laguntza emateko Osoko Bilkuraren erabaki-
ren kontra errekurtsioa jarri zuen zinegotzi talde
batek Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurre-
an, diru-laguntza horien banaketan erabili ziren
irizpideengatik, eta udal idazkariak banaketa hori
Ordenantzan agintzen zenaren kontrakoa zela
esanez emandako txosten bati helduz; Auzitegi
horrek arrazoia eman zien errekurtsioa egin zute-
nei, eta Osoko Bilkurak beste era bateko banaketa
egin zuen, laguntza-eskatzaile guztiei eskatutako
laguntzaren ehuneko 50 emanaz.

Berriozarko eta Berriobeitiko Udalen artean
sinatutako itun baten bitartez, Berriobeitiko biztan-
leei Berriozarko Musika Eskolan matrikulatzen
uzten zaie. Zerbitzu horrek sortzen duen defizita
ondoko koadro honetan adierazten den bezala

		Ikasle kopurua	Defizitaren kostua ikasle bakoitzeko
Musika Eskolaren defizita 2010ean	379.381,90		
Berriozarrek finantzatua	274.597,01	271	1.013
Berriobeitik finantzatua	104.784,89	78	1.343

Koadroan ikusten den bezala, Berriobeitiko
ikasleak defizitaren portzentaia handiago jasaten
du.

Kontzejuei egindako transferentzietan dagokie-
nez, puntuok argitu nahi ditugu:

a) Gastu arruntetarako transferentzia arruntak

2010ean 10.000 euro ordaindu zaizkio hamar
kontzejuetako bakoitzari, bi sei hilabetekotan.
Ordainketa 2011n egiten da, eta Udalaren urte
horretako aurrekontuan, desagertu egin da kon-
tzeptu hori, bideragarritasun-plana betetzeko, eta
urgentziazko kasuetarako 10.000 euroko kreditu
bat baizik ez da kontuan hartzen, orotara.

b) Inbertsionetarako kapital-transferentziak

2010eko martxoaren biko Osoko Bilkurak hasi-
erako onespina eman zion “Berriobeitiko Udaleko
kontzejuei diru-laguntzak emateko oinarriak arau-
tzen dituen Ordenantzari”. Ordenantza hauetako 1.
artikuluaren arabera, diru-laguntza horien helbu-
rria hamar kontzejuek, beren legezko eskumenen
barruan sartzen diren jardueretan bultzatzen dituz-
ten lanak finantzatzea da, eta hortik kanpora gera-
tzen dira eskumen horretatik kanpo dauden lanak.
Diru-laguntzaren banaketarako irizpide batzuk fin-
katzen dira, eta diru-laguntzaren zenbatekoa gastu
osoaren (BEZa barne) ehuneko 25 izango da, eta,
beste laguntza publiko zein pribatuekin batera,
ezin izango da inoiz ere egindako obraren kostua-
ren ehuneko 80 baino gehiago.

2010eko diru-laguntzak 2011n ebatzi dira, eta
kopuruok izendatu dira.

Elkarteko hilerria	830
Oteitzako kontzeju-etxea eraberritzea	2.027
Berriogoitiko kontzeju-etxea margotzea	148
Aitzoaingo kontzeju-etxea eraberritzea	17.610
Larragetako kontzeju-etxea eraberritzea	35.212
Berriogoitiko pilotalekua eraberritzea	343
Artikako pilotalekua eraberritzea	4.828
Aitzoaingo pilotalekua eraberritzea	4.828
Guztira	65.826

Gure aholkuak:

- *Haur-eskolen kudeaketa kontratatzeke 2012an egin behar den kontratazio-prozesua arautzeko oinarrietan goian aipatutako zuzeneko diru-laguntza aipatzea, diru-laguntza hori mantentzea komeni dela irizten baldin bada.*

- *Kontzejuak beren egiazko premiak, finantzatzeko duten ahalmena eta kontzejuetan egin beharreko inbertsioen lehentasunak kontuan hartuta finantzatzeko modua aztertzea.*

VI.5. INBERTSIOAK

6. kapituluak, "Inbertsioak" izenekoak, 2010ean 4,9 euroko betebeharrak aitortu bateratuak jasotzen

ditu. Horrek, izan ere, ehuneko 90eko betetze-maila izan dela esan nahi du, eta 2010eko aurrekontuan betetako guztiaren ehuneko 57 egiten du. 2009ko datuekin alderatuta, inbertsioetan egindako gastua 4,5 bider handitu da, Artikako kirol-instalazioak eraiki direlako batez ere -3,9 milioi euroko gastua eragin dute 2010ean-.

Azkeneko bost urte hauetan 14 milioi euro inbertitu ditu Udalak azpiegiturretan, instalazio berrietan eta ekipamenduetan.

Udalaren kontratazio-espeditente hauek aztertu ditugu:

	Kontratu-mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZa kenduta)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)
Traktore bat erostea	Hornidura	Irekia (Europar Batasuneko atalasetik beheiti)	1	35.593	35.590
Berriogoitiko Jauregiaren proiektua eta obra-zuzendaritza	Laguntza	Europar Batasunean urgentziarako publikitatez gabeko prozedura negoziatua	3	28.500	23.142
Berriogoitiko Jauregiko obrak	Obrak	Irekia, presako izapidez	10	316.953	313.784

2010 baino lehen esleitutako beste kontratu hauen betetze-maila ere aztertu da:

- Artikako kirolgunea, 2011 burutu zen; 8,87 milioi euroko kostua izan zuen azkenean (BEZa gabe).

- Añezkarko pilotaleku estaliaren obrak; 2010ean bukatu ziren; 639.242 euroko kostua izan zen (BEZa gabe).

Egin den azterketak erakutsi duenez, kontratu-ei buruzko legedia bete egiten da bai kontratazio-espeditenteak izapidetzean, bai haiek esleitzean

eta betetzean ere, haien alderdirik aipagarrienen, eta kontabilizaturiko gastuak ere arrazoizkoak direla egiaztatu da. Hala eta guztiz ere, ondoko alderdiak adierazi nahi ditugu:

a) Berriogoitiko Jauregiko obrak.

Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtzaren kontura finantzatzen dira; horregatik hartzen dira urgentziakotzat.

b) Artikako kirolgunea.

Obra honi dagokionez, ohar hauek egin nahi ditugu, laburki:

- 2008an onartu zen obra hauen proiektua, 12,23 milioi euroko balio batez (BEZa gabe), lehiketa ireki baterako deia egin zen eta kontratazio-mahaiaren lanak hasi ziren. 16 proposamen jaso ziren; horietatik bat ez zen onartu. 2008ko abenduan aurkeztutako eskaintzetatik onena baloratu zuen kontratazio-mahaiak.

- 2009ko apirilean, Osoko Bilkurak aurreko proiektua gehiegizkoa zela erabaki zuen, eta doitzea eginez, 8,82 milioi euroraino jaitsi zuen obren kostua (BEZa gabe); beherapen hori kontratazio-prozedura martxan zegoela eta aipatutako 15 eskaintzak jaso eta balioetsi ondoren egin zen. Orobat, proiektuaren erredaktatzaileekin kontratua behertzea negoziatu zen eta obra zuzendaritza 0,6 milioitik 0,38 milioira aldatu zen.

- Osoko Bilkurak ere proiektua gauzatzeko pleguan bere horretan mantentzea erabaki zuen, baina prezio berrietara egokituz eta eguneratuz; horretarako bilera bat egin zuen eskaintzak egingako 16ekin, eta hasierako prozedura baztertu eta prezio berriekin zuzendutako proiektuaren arabera eskaintza ekonomikoak egiteko epe berri bat zabaltzeko adostu ziren. Lehengo eskaintzak egingakoetatik 14 eskaintzak berritu zituzten.

- 2009ko azaroan esleitu zen 8,55 milioi eurotan (BEZa gabe), eta urte horretako abenduaren bukaera aldera sinatu zen kontratua, obra burutzeko 20 hilabeteko epe batekin, 2011ko abuzturako bukatzeko, hain zuzen.

- 2010ean, esleipendunak 12 ziurtagiri aurkeztu zituen, 3,9 milioi euroko zenbateko batez (BEZa gabe).

- Instalazio horiek 2011ko abuztuaren 29an zabaldu ziren jendearentzat; azken kostua 8,87 milioi eurokoa izan da; esleipenaren zenbatekoarekin alderatuz ehuneko 4ko desbideratzea izan da, gutxi gorabehera.

c) Añezkarko pilotaleku estalia.

Laburbilduz nabarmendu nahi ditugun puntuak:

- Obra hau 2009ko E planaren kontura finantzatu zen. Esleipenaren zenbatekoa, 514.328 euro (BEZa barne) Udalarari emandako diru-laguntzarekin bat dator.

- 2009ko maiatzaren 13an sinatu zen esleipenkontratua 513.813 eurotan (BEZa barne) edo

442.942 eurotan (BEZa gabe). Aurreikusitako obren iraupena 6 hilabetekoa zen.

- 2009ko abenduan bukatu ziren obrak, eta 442.942 euroz zertifikatu zen (BEZa gabe), esleipen-zenbatekoaren kopuru berberaz, beraz.

- Zuinketa-akta izenpetu baino bi egun lehengo, ordea, aurreko obrekin batera, esleipendun berberak egiteko II Fasea deitutako hobekuntza sail bat sartzea erabaki zuen Udaltzaren Osoko Bilkurak.

- 2010eko otsailean II Fase horren zertifikazioa aurkeztu zen, 196.388 euroko zenbateko batez (BEZa barne) edo 169.300 euroko zenbateko batez (BEZa gabe).

- Zertifikazio horren aurrean, hobekuntza horiek obrak esleitzeko izapidea egin gabe eta behar adinako aurrekontu-kreditu gabe egin zirela adierazi zuen udal idazkariak. Geroztik, Udaltzaren Osoko Bilkurak, betebeharrak horri aurre egiteko, aurrekontuetan aldakuntza bat egitea erabaki zuen.

- Obra osoaren kostua, bi fasean barnean hartuta, 639.242 eurokoa izan da, horrenbestez (BEZa gabe).

Gure aholkua:

- *Kontratuaren aldaketak, hura exekutatu aurretik izapidetzea behar bezala.*

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

Ekitaldi honetan aitorturiko eskubideak 10,5 milioi eurokoak izan ziren guztira, eta betetze-maila ehuneko 110a. Betetze-maila horren altua izatea zor berria hartu izanaren ondorioa da, funtsean; betetze-maila apalena duten kapituluak zeharbidezko zergak –ehuneko 39– inbertsio errealen besterentzeak izan dira –ehuneko 8–.

2009ko ekitaldiaren aldean, diru-sarreraren guztizko zenbatekoak ehuneko 77 egin du gora. Eragiketaren arruntengatik diru-sarrerak –diru-sarrera guztien ehuneko 36 izan dira 2010ean–, ehuneko 3 hazi dira, zeharbidezko zergengatik eta tasengatik batez ere; kapital-eragiketen ondoriozko diru-sarrerak ehuneko 294 hazi dira, Artikako instalazioak finantzatzeko maileguak hartu direlako batez ere. Hona diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera zehaztuta:

Izena	Aitortutako eskubideak 2009	Aitortutako eskubideak 2010	2010/2009 ald. ehunekotan
1. Zuzeneko zergak	1.792.618	1.972.476	10
2. Zeharkako zergak	412.929	177.448	-57
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	747.093	862.334	15
4. Transferentzia arruntak	662.161	700.104	6
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	19.059	23.762	25
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	3.633.860	3.736.124	3
6. Inbertsio errealek besterentzea	1.648.845	151.151	-91
7. Kapital-transferentzia eta beste eragiketa batzuk	646.270	814.758	26
9. Finantza-pasiboak		5.773.000	
Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak(6tik 9ra)	2.295.115	6.738.909	294
Diru-sarrerak guztira	5.928.975	10.475.033	77

Hurrengo koadroan zerga bakoitzari dagozkion aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak 2009	Aitortutako eskubideak 2010	2010/2009 ald. ehunekotan
Lurraren kontribuzioa	802.489	828.009	3
Ibilgailuen gaineko zerga	446.645	468.383	5
Lurren balio-igoeraren gaineko zerga	185.797	302.109	63
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	357.687	373.974	5
EIOZ	412.929	177.448	-57
Zergak, guztira	2.205.547	2.149.923	-3

Aldaketa nagusiak gainbalioaren gorakadaren-gatik eta EIOZaren beherakada handiagatik justifikatzen dira.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak agintzen dituen tasa behe/ertainen artean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	219/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,143	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-igoeraren gaineko zerga		
Gaurkotze-koefizientea	2,1-2,3	2 - 3,8 bitartean
Karga-tasa	8,3-10	8 - 20
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	4	2 - 5

Tasa hauek ez dira aldatu 2009ekin alderatuta eta, areago, zerga batzuek ez dute aldaketarik izan 2000ko ekitaldiaz gero.

2011an balorazio-ponentzia eguneratzeko lanak kontratatatu dira.

Orobat nabarmendu nahi dugu Inbertsio errealen besterentzeari dagokion kapituluaren betetze-

maila apala –ehuneko 8–; 6 lur-zati enkantean saltzea aurreikusita zegoen, 1,9 milioi euroko diru-sarrerak izango zirelako ustean, Artikako kirol-instalazio berriak finantzatzeko. Lur-zati horietako bat baizik ez da saldu, 151.151 eurotan.

Diru-sarrearen aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean eginiko azterketaren bitartez, oro

har, egokiro izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

VI.7. HIRIGINTZA

Udalak bere baliabideak erabiliz egiten du arlo honen kudeaketa, arkitekto baten bitartez, behar den laguntza administratiboarekin. Horrez gainera baditu hirigintza arlorako kanpoko aholkulariak ere; 2010ean 27.314 euroko gastua izan da horretan.

Araudiak agintzen duenaren arabera, hirigintza alorreko eskumena Udalari dagokio bakar-bakarrik; kontzejuak hirigintzarako baimenak ematera mugatzen dira, aurrez Udalak arauz bete beharreko txostena emanik; Berriobeitiko Udalerriko kontzejuak Udalari utzi diote eskumen hori, Elkarteko eta Ballariaingo kontzejuak salbu, horiek beren esku gorde baitute.

Berriobeitiko Udalaren Antolamendu Plan Orokorra 2001ean onartu zen. Gaur egun ia agortuta dago, garai hartan egin ziren aurreikuspen gehienak gauzatu direlako, Etxebakarko sektorea salbu; sektore honek 1.142 etxebizitza hartzeko ahalmena du, aurreikuspenen arabera, eta 2010eko maiatzean onartu zen hirigintza-proiektua egiten ari da une honetan.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. Ez da inon ageri prozesu hori hasi denik.

Plan hau, udalerrri konposatu hau, bertan eraikitzeko presioa duten etxebizitza-guneak landaizaera nabarmena duten beste batzuekin batera topatzen direna, zein konplexua den kontuan hartuta, kontzejuen planen batura eta sintesi gisa dago eraturik, eta araudi berdina du udal barruti osoarentzat.

Orain arte 58 aldaketa izan ditu eta sei plan partzial eta bi plan berezi garatu dira.

Planeamenduak, batera hartuta, 2.600 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zuen, erredaktatu zenean; geroztik beste 2.000 etxebizitza gehitu ziren. Une honetan 1.600 etxebizitza inguru gertatu dira eraikitzeko.

Udalaren Lurzoru Ondarea osatzen duten ondasunak ez dira kudeatzen gainerako ondasunetatik berezita. Hala ere, Udalaren lurzoru-ondareko elementuak saltzetik datozen diru-sarrerak atxikien eta haien aplikazioaren jarraipena egiten da.

2010ean hiru hirigintza-hitzarmen sinatu dira: planeamenduko bat eta derrigorrezko lagapenak dirutzeko bi. Azkeneko bi hauetan, ordea, ez da justifikatzen dirutze horren salbuespenezkotasuna, indarrean dagoen araudiak agintzen duen bezala.

Gure aholkuak:

- *Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen aurreikuspenen arabera, indarrean dagoen hirigintza-planeamenduaren berrikusketa hastea.*

- *Udalaren Lurzoru Ondarearen erregistroa eta inbentarioa berezita kudeatzea, indarrean dagoen legerian aurreikusitako helburuak bete daitezela.*

- *Hirigintzako aprobetxamenduak dirutzeko aukera modu egokien eta kasu bakoitzerako berezirik justifikatzea.*

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

GEHIGARRIA. BERRIOBEITIKO UDALERRIKO KONTZEJUEN AURREKONTU-EGOERA

1. koadroan Berriobeitiko Udalari atxikitako hamar kontzejuen aurrekontuetako gastuak eta sarrerak erakusten dira.

Datu horien azterketatik, honako hauek azpimarratzen ditugu:

- Kontzejuen gastuen guztirakoa 2,8 milioi eurokoa izan da 2010ean. Kontzejuak banaka hartuta, gastu osoaren ehuneko 73 Artikako Kontzejuan kontzentratzen da.

- Gastuen izaera ekonomikoari begiratuta, ehuneko 54 inbertsioei dagozkie, ehuneko 32 transferentzia arruntei eta ehuneko 10 ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuei.

- Langile-gastuak ehuneko 3 dira ozta-ozta. Artika eta Berriobeitiko kontzejuak baizik ez dute, zehazki esanda, langile-gasturik; garbiketarako pertsona bat eta pilotalekuak zaintzeko beste bat dira, kontzeju horietako bakoitzean; Artikako kontzejuak badu administrazioko bulegari bat lane-gun-zati batez. Artika, Berriobeiti eta Oteitzako kontzejuak kontzejukideei ere ordaintzen diete, bileretara joateagatik batez ere.

- Diru-sarrerak 837.091 eurokoak izan dira 2010ean. Kontzejuak banaka harturik, Artikakoak

eta Larragetakoak guztizkoaren ehuneko 27 hartzen dute bakoitzak.

- Sailkapen ekonomikoari begiratu gero, jasotako transferentziei dagozkien diru-sarrerak horiek ehuneko 42an, ondare bidezko diru-sarrerari ehu-

neko 21ean, finantza-pasiboari ehuneko 20an eta tasei ehuneko 17an.

Laburtuz, bada, koadro honetan adierazten da zertarako erabili den eta nola finantzatu den gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak eta ondasun arruntak	13	Tasak eta prezio publikoak	17
Transferentzia arruntak	32	Transferentziak	42
Inbertsioak	54	Ondare bidezko diru-sarrerak	21
Finantza-zama	1	Zorpetzea	20
	100 €		100 €

2. koadroan kontzeju hauen aurrekontuetako eta finantzatuko kopuru nagusiak adierazten ditugu; hauek dira nabarmentzekoak:

- 10 kontzejuetatik bostek superabita dute beren aurrekontuak betetzeari dagokionez; Berriogiti nabarmendu behar da, 19.890 euroko superabitarekin; defizita dutenen artean, Aitzoain -91.286 euro- eta Larrageta -44.828 euro- nabarmendu behar dira.

• Lotzako kontzejuak salbu, gainerako guztiek saldo positiboa dute guztirakoa/gastu orokorrak diruzaintza-gerakinari dagokionez. Zenbatekoagatik, Artikakoa -1,9 milioi euro- eta Aitzoain -0,7 milioi- nabarmendu behar dira. Kontzeju hauek dute diruzaintzako gerakinik handiena ere bukaeran.

• Larrageta eta Lotzako kontzejuak baizik ez dute zor bizirik.

Kudeaketari dagokionez, puntuok nabarmendu nahi ditugu:

- Udalak enplegatu bat izendatzen du kontzejuari aholkularitza emateko eginkizunetarako (aktak, fakturazioa...); kontzejuen kontabilitatearen eta aurrekontuen kudeaketa Udalak finantzatzen duen

kanpoko enpresa batek egiten du. Udalaren gastu hauek kontzejuari ordainarazi beharko litzaizkieke.

- Barneko legezko kontroleko eta kontrol ekonomikoko udal organoek aholkularitza-eginkizunak betetzen dituzte, baina ez daude ongi eta garbi definituta ez eginkizun horien irismena ez edukia.

• Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak kontzejuari ematen dizkieten eskumenetatik, bidegarbiketarena eta hirigintzarako baimenak emateari dagokiona Udalari utzi zaizkio (Elkarte eta Ballariaingo kontzejuak salbu).

• Denek gorde dituzte beren ondarea eta herri-ondasunak kudeatzeko eskumenak.

• Ez dute inbentariarik, eta beren ondasunetako bat bera ere ez dago erregistratuta, esateko.

• Osoko Bilkurak 2010ean onartu zuen Udalaren Saneamendu Planaren barruan kontzejuari dagozkien aurrezteko neurri hauek sartu dira udalaren aldetik:

– Kontzejuari egiten zaien ekarpen arrunta urritzea.

– Argiteria publikoaren gastua kontzejuari ordainaraztea.

1. KOADROA. KONTZEJUEN 2010eko AURREKONTUAREN BETETZE-EGOERA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Aitzoain	Añezkar	Artika	Ballariain	Berriobeiti	Berriogiti	Elkarte	Larrageta	Lotza	Oteitza	Guztira	%
1. Langile-gastuak			42.224,26		30.706,09					1.475,00	74.405,35	2,63
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	35.780,47	11.199,22	104.249,03	1.466,24	66.620,14	21.681,54	2.366,89	14.354,13	15.394,31	12.854,74	285.966,71	10,12
3. Gastu finantzarioak	268,97							768,53			18.403,16	0,65
4. Transferentzia arruntak	500,60	3.706,78	17.365,66	44,30	3.717,93	587,66	387,25	242,53	123,18	3.367,27	902.137,21	31,94
6. Inbertsio errealak	215.151,74	3.916,11	889.459,71	1.756,46	6.206,08	5.099,01	61.014,63	223.778,33		2.681,39	1.519.603,75	53,80
8. Finantza-aktiboak			1.000.000,00					360,66			360,66	0,01
9. Finantza-pasiboak							3.339,00	20.384,39			23.723,39	0,84
Kontzejuaren gastuak, guztira	251.701,78	18.822,11	2.053.298,66	3.267,00	107.250,24	27.368,21	63.768,77	242.074,65	36.670,41	20.378,40	2.824.600,23	% 100
Gastu guztiaren gaineko %	8,9	0,67	72,69	0,12	3,8	0,97	2,26	8,57	1,30	0,72		

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Aitzoain	Añezkar	Artika	Ballariain	Berriobeiti	Berriogiti	Elkarte	Larrageta	Lotza	Oteitza	Guztira	%
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	20.831,81	6.576,20	45.806,28	271,35	48.235,96	11.769,40	637,34	2.572,43	3.607,59	1.439,73	141.748,09	16,93
4. Transferentzia arruntak	44.610,71	18.207,83	91.586,01	14.271,20	38.464,21	31.788,95	12.136,15	13.175,33	14.029,04	14.208,34	292.477,77	34,94
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	19.533,25	8.053,76	87.263,25	1.859,42	16.137,29	3.700,13	7.147,23	11.396,22	10.176,23	5.445,51	170.712,29	20,39
7. Kapital-transferentziak	2.199,54	2.384,00			13.230,50		11.656,16	32.581,34			62.051,54	7,41
9. Finantza-pasiboak								170.101,00			170.101,00	20,32
Kontzejuaren diru-sarrerak guztira	87.175,31	35.221,79	224.655,54	16.401,97	116.067,96	47.258,48	31.576,88	229.826,32	27.812,86	21.093,58	837.090,69	% 100
Gastu guztiaren gaineko %	10,41	4,21	26,84	1,96	13,87	5,65	3,77	27,46	3,32	2,52		

2. KOADROA. KONTZEJUEJEN AURREKONTJUEJEN ZENBATEKOAK 2010ean

Magnitudea	Aitzoain	Añezkar	Artika	Ballariain	Berriobeiti	Berriogoiti	Eikarte	Larrageta	Lotza	Oteitza
Aurrekontu-emaizta doituia	-91.286,34	18.163,78	8.434,67	14.891,43	-4.412,78	19.890,27	32.191,89	-44.828,42	-8.857,55	715,18
Diruzaintza-gerakina, guztira	728.157,81	193.782,88	1.879.353,37	295.509,03	251.416,09	101.994,54	81.656,48	91.579,29	-3.957,15	88.806,04
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	728.157,81	193.782,88	1.879.353,37	295.509,03	251.416,09	101.994,54	81.656,48	91.579,29	-3.957,15	88.806,04
Diruzaintzako bukaerako izakinak	627.645,37	147.677,89	2.195.516,00	285.986,35	243.796,10	91.901,73	74.719,66	51.425,97	4.659,86	15.490,59
Zor bizia	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	166.762,00	41.700,27	0,00

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Iruñeko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (25. or.).
- II. Udalari buruzko datu orokorrak eta arauak (26. or.).
 - II.1. Udalari buruzko datu orokorrak (26. or.).
 - II.2. Araudia (28. or.).
- III. Helburua (29. or.).
- IV. Irismena eta mugak (29. or.).
- V. Iritzia (30. or.).
 - V.1. Udalaren Kontu Orokorra (30. or.).
 - V.2. Legezketasuna (30. or.).
 - V.3. Egoera ekonomikoa (30. or.).
 - V.4. Aurreko ekitaldietako aholkuen betetze-maila (31. or.).
- VI. Finantza-egoerako orriak (32. or.).
- VII. Iruzkina, ondorioak eta aholkuak (35. or.).
 - VII.1. Orokorrak (35. or.).
 - VII.2. Barne-kontrola (35. or.).
 - VII.3. Langileak (35. or.).
 - VII.3.1. Aparteko orduak (35. or.).
 - VII.3.2. Udalbatzako kideen ordainsariak (36. or.).
 - VII.3.3. Azterketa aktuariala (37. or.).
 - VII.4. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (38. or.).
 - VII.5. Gastu finantzarioak (38. or.).
 - VII.6. Transferentziak (38. or.).
 - VII.7. Inbertsioak (39. or.).
 - VII.8. Tributu bidezko diru-sarrerak (40. or.).
 - VII.9. Transferentzia arruntak eta kapitalekoak (41. or.).
 - VII.10. Erakundeak eta enpresak (42. or.).
 - VII.11. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 2010ean (42. or.).
 - VII.12. Aurrekontu-betetzearen bilakaera 2001-2010 (43. or.).
- 1. Eranskina udal batzordeko kideek udaletik eta enpresa publikoetatik jasotako ordainsariak 31 (45. or.).
- 2. Eranskina aurrekontuak betetzearen bilakaera (2001-2010) (46. or.).

Iruñeko udalaren urteko kontu bateratuen memoria, 2010eko abenduaren 31ri dagokiona.

(Oharra: Memoria foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Comptos Ganberak Iruñeko Udalak 2010eko ekitaldian izandako jarduera finantzarioari buruzko arauzkotasunaren ikuskatzea egin du.

Lan hau Comptos Ganberak 2011rako onetsi zuen fiskalizazio-programaren barruan sartu zen, eta kontu-ikuskaritzako bost teknikarik eta kontu-ikuskatzaile batek osaturiko talde batek egin zuen, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin betiere.

Fiskalizazio-txostenarekin batera 2010eko ekitaldiko urteko kontu bateratuen memoria, udalak eginikoa, erantsi dugu.

2010eko ekitaldiko kontuak 2012ko otsaileko Osoko Bilkuran onartu ziren; horrek eragin du txosten hau aurkezteko izan den atzerapena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. UDALARI BURUZKO DATU OROKORRAK ETA ARAUAK

II.1. UDALARI BURUZKO DATU OROKORRAK.

Iruñeko Udalak, zuzenbideko 197.488 biztanle zituen 2010eko urtarrilaren 1ean, eta 23,55 km²-ko azalera.

Udalaren antolamendua, besteak beste, beharrezkoak diren ondoko organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkura, ordezkaritza politikoa gorenaren organoa dena, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatea.

Administrazio-antolamendua arautzeko, Udalak alkatezaren xedapen bat onetsi zuen 2007an, eta haren bitartez honako udal-egitura hau ezarri zen, alkatearen zuzendaritzapean:

- Alkatezako Kabinete bat.
- Gerentzia bat, udal alorren funtzionamendua zuzentzen eta koordinatzen duena.

- Hamahiru gobernu-alor gehi udaltzaingoa, hau ere alortzat hartzen delarik, ondorio askotarako.

Alorrek zinegotzi-bulego baten ardurapean daude, eta alor bakoitzak zuzendari bana eta idazkari tekniko bana dute, biak zuzenean izendatuak.

Egitura horrek zenbait aldaketa izan ditu 2011ko udal hauteskundearen ondoren.

Udalak ondoko erakunde hauek sortu ditu, zerbitzu publikoak kudeatzeko:

- Erakunde autonomoak:

Udalaren haur-eskolak: Haur-eskolen zerbitzua kudeatzeko.

Hirigintzako Udal Gerentzia: Iruñeko udalerriarren hirigintza kudeatzeko.

- Merkataritza-sozietateak

Ondoko koadro honetan agertzen dira Udalak udal enpresa publikoetan duen partaidetza-gehiengoa eta enpresa horiek ematen dituzten zerbitzu publikoak:

Enpresa	Partaidetza (%)	Sozietatearen xedea
Comirruña, S.A.	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico S.A.	100	Hirigune historikoaren hirigintza
ANIMSA, S.A.	77,69	Udal informatika.
Mercairuña, S.A.	51	Handizkako merkatuak
Asimec S.A.	100	Etkez etxeko laguntza


Udalak ehuneko 31,49ko partaidetza du Oficina de Congresos de Pamplona Convention Bureau, S.L. enpresan; enpresa honek kongresu-kudeaketa du jarduera gisa.

- Fundazioak:

Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Horrez gainera, orain dela 300 urte baino gehiago sortu zen Erruki Etxea Fundazioa ere –adineko pertsoneri laguntza ematen diena– Iruñeko Udalarri lotuta dago, eta haren datuak ere txosten honetan sartzen ditugu, horregatik.

Iruñeko Udalaren eta haren mendeko erakundearen osaera ondoko irudian ageri dena da.



Honako hauek dira entitate horiek guztiek 2010eko ekitaldia ixtean zituzten datu ekonomiko nagusiak:

- Administrazio publikoaren arloa:

(Euroak, milakotan)			
	Aitorturiko eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 12-31n
Udala	245.592	215.085	1.280
Hirigintza Gerentzia	32.823	29.294	31
Haur Eskolak	7.477	7.763	155

- Merkataritza-sozietateak:

(Euroak, milakotan)				
Enpresak	Sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Comiruña, S.A.	555	507	47	6,59
Mercairuña, S.A.	1.368	1.209	158	13
ANIMSA	8.851	8.786	65	113,88
Pamplona Centro Histórico S.A	2.166	2.271	-105	6,5
Asimec, S.A.	1.263	1.288	-25	42,78

- Fundazioak:

(Euroak, milakotan)			
	Sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak
Gayarre Antzokia	2.493	2.475	18
Erruki Etxea	16.508	15.725	783

Iruñeko Udalaren erakunde autonomoen, enpresa publikoen eta fundazioen 2010eko ekitaldiko kontuen ikuskatzea kanpoko kontu-ikuskatzaileek egin dute.

Iruñeko Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduko zerbitzuak eta hiri-garraioko zerbitzuak.

II.2. ARAUDIA

Iruñeko Udalari 2010eko ekitaldian aplikatzea zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutuaren Testu Bategina.

- Langileen Estatutuari buruzko 1/1995 Errege Lege Dekretua.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki erakundeei buruz ezarritako berezitasunekin.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.

- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta Tokiko Iraungarritasunerako Estatuko Funtsa sortu zuena.

- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriak buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen alorrean, Nafarroako toki administratzaioari aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.

- 2010eko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

Udalak exijitutako tasa eta prezio publikoak buruzko ordenantzak eta erabakiak.

- Iruñeko Udalaren 1998ko otsailaren 27ko Erregelamendu Organikoa.

- Udal egitura arautzen duen 2007ko alkatetzaren xedapena.

- Abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legea, Iruñeko Hiriburutza Agiria ezartzen duena.

III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, udalaren 2010eko ekitaldiaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Lan honen xedea ondoko gai hauei buruz dugun iritzia ematea da:

Ea Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorak irudi zehatza ematen duen ondareaz, egoera ekonomiko-finantzarioaz, aurrekontuaren likidazioaz eta 2010eko abenduaren 31ko emaitza ekonomikoaz, aplikatzekoak diren kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

b) Udalak 2010an izandako jarduera ekonomiko-finantzarioan aplikatzekoak den legeriaren betetze-mailaz.

c) Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoera bateratuaz.

d) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, Comptos Ganbera honek eman zituen aholkuak bete diren.

Helburu orokor horiekin batera, horien osagarri gisa eta gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, azken urteotako aurrekontuen betetze-mailaren azterketa bat egin da txosten honetan, gaur egungo egoera ekonomiko honetan erabakiak hartzen lagun lezaketan ondorioak ateratzeko. Era berean hornitzaileei ordaindu beharreko ordainkizunen epeen analisi bat egin da, 2010eko ekitaldiari buruz.

IV. IRISMENA ETA MUGAK

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programaren arabera, Iruñeko Udalaren (aurrerantzean, "Udala") finantzen egoera-orrien fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2010eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaitza eta diruzaintza-gerakina, bai eta egoera-orri horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere.

Informazio finantzario horretan sarturik daude Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-likidazio bateratua eta udalaren, erakunde autonomoen eta partaidetza, osotara, udalarena duten sozietateen (Comiruña eta Pamplona Centro Histórico eta Asistencia municipal en casa S.A.) egoera-balantze bateratua.

Gainerako udal erakundeei dagokienez, kanpoko kontu-ikuskatzaileen txostenak aztertzea, eta horietatik atera daitezkeen ondorioak eta aholkuak ateratzea da gure helburua.

Egindako lanaren aztergai nagusia diru-sarreen eta gastuen kapitulu ekonomikoen eta ondare-masen berrikusketa egin eta barne antolaketa, kontabilitate eta kontrolari dagozkien puntuak aztertzea izan da.

Aurrekontu-betetzearen bilakaeraren azterketa 2001-2010 bitarteko urteotako likidazio bateratuetan oinarrituz egin da. Ordaintzeko epeak 2010eko ekitaldiko fakturatarako kalkulatu dira.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio-printzipioei eta arauari jarraituz burutu dugu lana eta, horrez gainera, gaur egungo egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak ere egin ditugu.

Txostenean daude, orobat, udalaren eta haren erakundeen antolamendua, barne-kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta aholkuak.

V. IRITZIA

Egin dugun lanaren irismena kontuan hartuta, udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu –Kontu Orokor horiek prestatzeko ardura eta haren edukia Udalaren erantzukizuna dira–, eta orobat aztertu ditugu Udalaren erakunde autonomoi, enpresei eta fundazio publikoei buruzko kontu-ikuskatzaileek ekitaldi horri dagokionez aurkeztutako txostenak ere.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi honetara iritsi gara:

V.1. UDALAREN KONTU OROKORRA

Udalak badu pasiboen sistematik heldu diren betebeharren azterketa aktuarial bat; horrek hamarraldi honetan duen eragina urteko 22 milioi euro ingurukoa da. Balantzean, hala ere, ez da balantzio hori jasotzen.

Udal montepioari atxikitako funtzionarioentzat indarrean dagoen pentsio-ereduaren ondoriozko betebeharrak aktuarialak zenbatetsi ez izanari dagokion salbuespenaren ondorioak salbuetsita, gainerakoan Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrrak irudi zehatza agertzen du, garrantzia duten alderdi guztietan, Udalak 2010eko abenduaren 31n zuen ondareaz eta finantza-egoeraz, 2010eko

ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-mailaz eta data horretako ekonomia- eta ondare-emaitzaz. Kontu Orokor horietan kontuak behar bezala interpretatzeko eta ulertzeko behar den informazio guztia jasotzen da, aplikatzekoak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauak agintzen duten bezala.

V.2. LEGEZKOTASUNA

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkontasun-printzipioari jarraituz egin da 2010eko ekitaldian zehar.

V.3. EGOERA EKONOMIKOA

Gastuen hasierako aurrekontuari –285 milioi euro– beste 47 gehitu behar zaizkio –hau da, ehuneko 16–, 332 milioiko kopurura iristeko. Gastuek 270 milioi euro egin dute; betetze-maila ehuneko 82koa izan da, beraz. Aitorturiko eskubideek 236 milioi egiten dute; haien betetze-maila, beraz, ehuneko 71koa da.

Aurrekontuaren emaitza doituia -28,2 milioi eurokoa da; aurreko urtean, aldiz, 19,4 milioi euroko superabita izan zen.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina -21,4 milioi eurokoa izan zen. Gerakin hori era honetan dago osatuta:

	2010	2009
Udala	-26	3,15
Haur eskolak	0,2	4,2
Gerentzia	4,4	0,1
	-21,4	7,4

Betetze-maila bateratuari buruzko adierazle nagusiak hauek dira:

	2006	2007	2008	2009	2010
Aitorturiko eskubideak, guztira	213.156.908	276.285.653	277.546.063	295.286.190	236.615.913
Aitorturiko betebeharrak, guztira	238.070.062	323.305.342	255.120.428	284.305.433	270.366.091
Zorpetze-maila	% 1,54	% 2,86	% 3,21	% 3,40	% 3,54
Zorpetzearen muga	% 13,31	% 6,76	% 6,40	% 9,04	% 7,60
Zorpetze-ahalmena	% 11,78	% 3,90	% 3,18	% 5,64	% 4,07
Inbertsio-indizea	% 35,12	% 50,01	% 32,68	% 38,09	% 34,28
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak	772	803	845	859	866
Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrera	383	416	423	459	426
Biztanle bakoitzeko zorra	245	308	366	509	489

Datu bateratuetatik ateratzen denez, 2010. urtean zehar zorpetzeko ahalmena eta biztanleko zerga bidezko diru-sarrerak urritu egin dira, eta biztanleko gastu arruntak handitu. Ekitaldi horretako emaitza doitu 2009an 19,4 milioi euro izatetik 2010ean -28,2 milioi euro izatera aldatu da, eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina ere -21,2 milioi eurokoa da. Biztanle bakoitzeko zorra gutxitu egin da, aurrekontuetan aurreikusita zeuden maileguak (62,6 milioi euro) hitzartu ez zirelako eta zegozkien amortizazioak egin zirelako, eta era horretan zorraren zenbateko bateratua 96,6 milioi eurokoa da.

Zor hori sarrera arrunt guztien % 53 adina da; portzentaje horrek ez du gaintitzen, hala ere, legeak ezartzen duen % 75eko muga, handik gora zorrik hartu ezin daitekeena.

VII.12. atalean Iruñeko udalak azkeneko hamar urteotan izan duen bilakaera ekonomiko-finantzarioa aztertzen da.

Gaur egungo krisi ekonomikozko egoerak eta Nafarroako Udalen artean banatzeko transferentzien bolumenari buruz ikusten den zalantza-egoerak finantzatzeko zailtasunak eragin liezazkioke etorkizun hurbilerako. Horregatik, bada, eta epe ertain baten barrurako bideragarria izango dela bermatzeko, bere gastu arruntak murrizteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko neurri sail bat aplikatzen jarraitu beharko du Udalak.

V.4. AURREKO EKITALDIETAKO AHOLKUEN BETETZE-MAILA

2010ean kontabilitatea eramateko aplikazio informatiko berri bat jarri izanari esker, aurreko ekitaldietako aholku gehienak bete ahal izan dira. Hala ere, txosten honetan zehar oraindik ere kontuan hartzekoak diren edo eman beharrekoak direla iruditzen zaizkigun aholkuak jaso ditugu.

Atal honetan, gaur egungo egoera ekonomikoan garrantzitsuenak iruditzen zaizkigun bi alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- Kontuak onartzeko epea: Kontuek kudeaketarako eta erabakiak hartzeko balio izatea nahi baldin bada, legez jarrita dagoen epea (iraila) baino

lehen onartu behar dira, eta ez 2012ko otsailean 2010eko kontuak onartu diren bezala. Gai honi dagokionez, udalen kontuei buruz Ganbera honek oraindik aspaldi ez dela Parlamentuari bidali zion ekimena gogoratu nahi dugu.

- "Proiektu handiak": Nafarroako Comptos Ganbera hau aspalditik ari da aholkatzen proiektu guztiek, "proiektu handiek" batez ere, beren bideragarritasun-azterketa izan beharko luketela (ez udal mailan bakarrik). Gaur egungo krisi ekonomikoak funts publikoak erabiltzerakoan oraindik ere zorrotzago jokatzea behartzen ditu administrazio publikoak.

Alde honetatik, bistako gauza dirudi inbertsioak egiteko erabilgarri dauden funtsek zeinek bere bideragarritasun-plana izatearen alde egin behar dela apustua, eta horien artean jarduera ekonomikoa biziagotzeko edo enplegua sortzeko balio dutenei eman behar zaiela lehentasuna.

Izan daitezkeen proiektu horien artean, Nafarroako Gobernuak 2010eko otsailean "Abiadura Handiko Trenaren Geltoki Berriko Esparrua eta Iruñeko Tren geltoki Zaharreko Esparrua garatzeko udalez gaitzeko plan sektoriala" onartu zuela nabarmendu nahi dugu.

Plan horren kudeaketaz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, eta Iruña, Zizur Nagusi eta Zizurko Zendea udalak parte diren partzuergo bat arduratzen da.

Plan horretan eraikuntza horrek 297 milioi euroko kostua izango duela eta ia 2 milioi metro koadrotan 9.000 etxebizitza eta jarduera ekonomikoetarako beste zenbat leku eraiki beharko direla aurreikusten da, guztira eraikitako 1,4 milioi metro koadroko azalera bat osatzeraino.

Abiadura Handiko Trenaren eraikita geltoki berria beharrezkoa baldin bada, Udalak aurrez ezagutu behar ditu gaur egun, krisi ekonomiko globalaz gainera Espainiako Estatuan eraikuntzaren sektorea pairatzen ari den krisi bereziak definitzen duten testuinguru honetan, etxebizitza kopuru handi hori kudeatzeak ekar litzakeen ondorio ekonomiko eta finantzarioak.

VI. Finantza-egoerako orriak

2010eko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-ortia

Gastu-aurrekontuaren betetzea. Saikapen ekonomikoa

Konzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak + gehik/murrizk.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorutako betebeharrak	Kitatutako ordainketak	Egiteko dauden ordainketak	Betetakoa (%)	% aitorutiko guztiaireneko gainekoa
Langile-gastuak	1	86.343.500,00	57.269,15	86.400.769,15	83.631.061,99	82.870.453,08	760.608,91	% 96,79	% 30,93
Zerbitzuak eta ondasun aruntak erostea	2	77.065.037,00	201.445,80	77.266.482,80	72.943.025,79	54.827.084,19	18.315.941,60	% 94,42	% 26,98
Gastu finantzarioak	3	4.300.000,00	-12.000,00	4.288.000,00	2.045.768,85	2.034.748,16	11.020,69	% 47,71	% 0,76
Transferentzia aruntak	4	12.753.459,00	196.222,75	12.949.681,75	12.352.433,34	8.325.096,86	4.027.336,48	% 95,39	% 4,57
Inbertsio errealak	6	88.613.922,00	41.911.882,71	130.525.804,71	82.388.668,71	54.922.943,84	27.465.724,87	% 63,12	% 30,47
Kapital-transferentziak	7	9.166.447,00	4.077.290,49	13.243.737,49	10.305.065,88	5.216.448,64	5.088.617,24	% 77,81	% 3,81
Finantza-aktiboak	8	2.318.200,00	274.445,99	2.592.645,99	2.279.998,28	2.276.998,28	3.000,00	% 87,94	% 0,84
Finantza-pasiboak	9	4.440.500,00	0,00	4.440.500,00	4.420.068,46	4.420.068,46	0,00	% 99,54	% 1,63
Gastuak guztira		284.991.065,00	46.706.556,89	331.697.621,89	270.366.091,30	214.693.841,51	55.672.249,79	% 81,51	% 100,00

Dinarrera-aurrekontuaren betetzea. Saikapen ekonomikoa

Konzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak + gehik/murrizk.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorutiko eskubideak	Kitatutako kobrantzak	Kobratzeke	Betetakoa (%)	Aitorutiko guztiaireneko gainekoa
Zuzeneko zergak	1	49.129.370,00	0,00	49.129.370,00	50.799.629,02	48.054.939,05	2.744.689,97	% 103,40	% 21,47
Zeharkako zergak	2	7.000.000,00	0,00	7.000.000,00	6.519.397,04	6.030.565,67	488.831,37	% 93,13	% 2,76
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3	29.499.900,00	0,00	29.499.900,00	26.691.372,14	23.867.736,90	2.823.635,24	% 90,48	% 11,28
Transferentzia aruntak	4	96.753.127,00	189.062,70	96.942.189,70	96.128.611,43	93.970.366,86	2.158.244,57	% 99,16	% 40,63
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	2.947.000,00	0,00	2.947.000,00	2.685.494,90	2.633.836,40	51.658,50	% 91,13	% 1,13
Inb. errealak bester.	6	1.000.000,00	0,00	1.000.000,00	5.094.435,81	3.538.705,28	1.555.730,53	% 509,44	% 2,15
Kapital-transferentziak	7	45.086.966,00	17.760.829,65	62.847.795,65	46.428.560,29	35.538.764,24	10.889.796,05	% 73,87	% 19,62
Finantza-aktiboak	8	2.182.150,00	17.512.829,91	19.694.979,91	2.268.412,23	1.426.706,23	841.706,00	% 11,52	% 0,96
Finantza-pasiboak	9	51.392.552,00	11.243.834,63	62.636.386,63	0,00	0,00	0,00	% 0,00	% 0,00
Diru-sarrerak guztira		284.991.065,00	46.706.556,89	331.697.621,89	236.615.912,86	215.061.620,63	21.554.292,23	% 71,33	% 100,00

Egoera-balantze bateratua, 2010/12/31n (272/1998 Foru Dekretuaren arabera)

A	IBILGETUA	1.098.964.371,93	A	FUNTS PROPIOAK	1.020.009.260,79
1	IBILGETU MATERIALA	507.529.821,42	1	ONDAREA ETA ERRESERBAK	648.271.358,46
2	IBILGETU EZ-MATERIALA	22.229.213,11	2	EKITALDIAREN EMAITZA EKONOMIKOAK (ETEKINA)	21.187.193,44
3	ERABILERA OROKORRERAKO AZPIEGITURAK ETA ONDASUNAK	560.126.773,28	3	KAPITAL-DIRU-LAGUNTZAK	350.550.708,89
4	HERRI-ONDASUNAK		B	ARRISKUETARAKO ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	0,00
5	IBILGETU FINANTZARIOA	9.078.564,12	4	HORNIDURAK	0,00
	B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0,00	C	EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	96.752.690,88
6	KITATU BEHARREKO GASTUAK	0,00	4	JASOTAKO JESAPENAK, MAILEGUAK, FIDANTZAK ETA GORDAILUAK	96.752.690,88
	C ZIRKULATZAILEA	91.015.237,01	D	EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	73.217.657,27
7	IZAKINAK	9.433.755,41	5	ITXITAKO AURREKONTUETAKO HARTZEKODUNAK ETA AURREKONTUEZ KANPOKOAK	74.403.545,24
8	ZORDUNAK	48.789.096,45	6	APLIKATZEKO DAUDEN KONTUSAILAK ETA ALDIZKATZEAREN ONDORIOZKO DOITZEAK	-1.185.887,97
9	KONTU FINANTZARIOAK	32.770.690,90			
	FINANTZA EGOERA IRAGANKORRAK, ALDIZKATZEAREN ONDORIOZKO DOITZEAK FINANTZAKETAREN EGOERA IRAGANKORRAK, ALDIZKATZEAK ERAGINDAKO DOITZEAK. APLIKATZEKO	21.694,25			
11	APLIKATZEKO DAGOEN EMAITZA (EKITALDIKO GALERA)	0,00			
	AKTIBOA, GUZTIRA	1.189.979.608,94		PASIBOA, GUZTIRA	1.189.979.608,94

2010 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza

KONTZEPTUA	AURREKO EKITALDIA (2009)	ITXIERA-EKITALDIA (2010)
Aitorturiko eskubide garbiak	295.286.189,59	236.615.912,86
Aitorturiko betebeharrak	-284.305.433,04	-270.366.091,30
AURREKONTUAREN EMAITZA	10.980.756,55	-33.750.178,44
DOITZEAK		
Finantzetaren desbideratze positiboa	-27.074.194,92	-6.575.279,03
Finantzetaren desbideratze negatiboa	25.536.451,25	12.115.597,19
Diruzaintzako gerakinaz finantzaturiko gastuak	10.000.000,00	0,00
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA	19.443.012,88	-28.209.860,28

Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2009ko abenduaren 31n

Kontzeptua	ITXIERA-EKITALDIA (2009)	ITXIERA-EKITALDIA (2010)	Aldaketa, ehunekotan
(+) KOBRAZTEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	50.263.144,70	62.356.708,88	% 24,06
(+ Diru-sarreraren aurrek: Aurtengo ekitaldia	33.426.776,81	21.870.978,50	
(+ Diru-sarreraren aurrek: Itxitako ekitaldiak	15.945.603,62	44.363.363,08	
(+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	6.760.120,07	2.563.251,61	
(+ Ordainketen itzulketak		1.916,84	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-5.747.198,28	-6.253.120,46	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-122.157,52	-189.680,69	
(-) ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK.	-58.013.666,14	-93.129.710,23	% 60,53
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-34.336.073,44	-55.672.249,79	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-14.538.468,04	-30.399.880,61	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-8.677.299,76	-6.558.622,53	
(-) Egiteke dauden itzulketak Ordainketa	-468.663,88	-505.838,15	
(+ Aplikatzeko dauden ordainketak	6.838,98	6.880,85	
(+) DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	41.202.061,59	31.032.413,36	-% 24,68
(+) FINANTZIAZIO-DESBIDERATZE METATU NEGATIBOAK	25.218.056,35	27.723.091,61	% 9,93
= DIRUZAINZAZI-GERAKINA, GUZTIRA	58.669.596,50	27.982.503,62	-% 52,30
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	39.869.870,02	25.578.273,42	-% 35,85
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	11.381.709,28	23.860.764,26	% 109,64
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	7.418.017,20	-21.456.534,06	-% 389,25

VII. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA AHOLKU- AK

Txosten honetan adierazten den iritzia kontuan hartuta, gure iritzian informazioa osatzeko eta hobeto ulertzeko balio dezaketen alderdiak azpimarratuko ditugu atal honetan.

Memoriak –Udalak taxutu du eta txosten honen eranskin gisa ageri da– kontabilitate hutseko informazioa osatu eta zabaltzen duen informazioa jasotzen du.

VII.1. OROKORRAK

2010eko azkeneko hiru hilabeteetan aplikazio informatiko berria martxan jartzeak sekulako aldaketa ekarri du, orain arteko fiskalizazio-txostenetan nabarmendutako ia alderdi guztiak zuzentzea eta emandako aholkuak betetzea izan baitu ondorioa.

Horrelako aldaketak egiten diren gehientsuenean bezala, aplikazio berri bat martxan jartzeak denbora behar izaten du ongi egokitzeko eta gertatzen diren desegokitasun txoak zuzentzeko.

Kontuen onarpena, 2012ko otsailaren 2ko Osoko Bilkuran onartu baitziren, legez aginduta dagoen epea baino geroago egin zen.

Gai honi dagokionez, Nafarroako Comptos Ganbera honek ekimen bat aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan; hartara jo bedi.

Egindako lanaren ondorioz, bada, hau aholkatzeko dugu:

- Kontu orokorra legez ezarritako epeetan egi-tea eta onestea.
- 1998ko erregelamendu organikoa udal egituraren arabera egokitzea.
- Informazio ekonomiko-finantzarioa zabaltzea eta udalaren Interneteko webgunean udalaren aurrekontua ez ezik, haren betetze-maila eta mende-ko organismoen kontu-ikuskatzeak ere sartzeara.
- Aurrekontuen informazioaren osagarri gisa, Partzuergoak Iruñeko udalerrian hark bere esku hartuta dituen udal zerbitzuetan egiten duen jardura ere sartzeara komeni den aztertzea.
- Aurreko ekitaldiko txostenean jakinarazten genuen bezala, administrazio batek baino gehiagok esku hartzen duten eskumenak aztertzea eta, horietako bakoitzari dagokionez, herritarrari zerbitzu hori emateko modurik eraginkorrena eta ekonomikoa zein izan daitekeen zehaztea.

VII.2. BARNE-KONTROLA

Ekitaldian udal kontu-hartzaitzak eginiko barne-kontrolaren helburua gastuen aurretzako fiskalizazio mugatu bat egitea, ordainketa-agindua- ren kontu-hartzea eta, kanpoko kontu-ikuskatzaile-ek eginiko kontu-ikuskatzeen bitartez, udalaren erakunde autonomoen eta enpresa publikoen kontrol finantzarioa egitea izan zen.

Gure aholkua:

- *Barne kontrola egiten den alderdi bakoitzari zein eduki eta irismen eman behar zaion aztertzea, hala definitzen diren arlo edo proiektuetako aurretzako kontu-hartzaitza eta fiskalizazio lanak urtean zehar egin ahal daitezen.*

VII.3. LANGILEAK

Kapitulu honetako betetze-maila 83,6 milioi eurokoa da, behin betiko aurrekontuaren ehuneko 97, 2009an izan zena baino ehuneko bat gutxiago.

Hirigintzako Gerentziako eta Haur Eskoletako langileez aparte (31 langile hartan eta 155 langile honetan, abenduaren 31n), 1.436 pertsonak osatzen dute udalaren langile-plantilla; horietatik 40 izendapen librekoak dira.

Pertsona kopurutik handiena udaltzaingoan dago (493 pertsona) udalaren langile-plantilla osoaren % 34; multzo honetan erabat aldatu da antolamendua. Udaltzaingoaren antolamendu-araudia onartu ondoren, berorren plantilla bertako kideen egiazko antolamendurekin erabat adosten da; lau eremutan banatzen da, eta eremuok brigadatan eta taldetan banatzen dira.

31-12-2010 datan 341 lanpostu zeuden hutsik, eta beste 143 lanpostu-erreserba dutenak.

12/2010 Foru Legean aurreikusten diren aurrezteko neurriak modu egokian aplikatu dira, eta, egin diren kalkuluen arabera, milioi bat euro aurreztu dira Udalean eta Udalaren erakunde autonomoetan.

VII.3.1. Aparteko orduak

Aparteko orduei dagokienez, 2008, 2009 eta 2010 urteetan aparteko orduengatik ordaindu diren ordainsarien konparaketa-koadro bat aurkezten dugu ondoren, aparteko orduak kontzeptuz kontzeptu sailkatuz.

AZALPENA	Zenbatekoa (eurotan)		
	2008	2009	2010
Ohiz kanpoko aparteko orduak		208	
Lanegunetako Aparteko Orduak	533.278	295.498	262.484
Jaiegunetako Aparteko Orduak	175.333	136.523	84.270
	708.611	432.228	346.754
Lanegunetako Aparteko Orduak Hauteskundeetan	8.846	2.538	
Jaiegunetako Aparteko Orduak Hauteskundeetan	30.376	32.073	
	39.222	34.611	
Lanegunetako Aparteko Orduak Sanferminetan	1.596	832	1.349
Jaiegunetako Aparteko Orduak Sanferminetan	288.745	319.816	286.081
	290.342	320.648	287.430
Aparteko orduen ordainsariak guztira	1.038.174	787.486	634.184

Koadro honek garbi erakusten du aparteko orduen ordainsariak, guztira, nabarmen jaitsi direla 2008. urtetik 2010era.

Azkeneko bi urte hauetan egin diren aparteko orduen izaerari begiratzen badiogu, era honetako bilakaera ikusten dugu:

Mota	2009		2010	
	Ordu kopurua	Hartzaileak	Ordu kopurua	Hartzaileak
Lanegunetan	19.784	413	17.828	404
Jaiegunetan	7.022	309	4.661	278
Lanegunetan Sanferminetan	53	2	80	3
Jaiegunetan Sanferminetan	17.163	516	13.286	435
Lanegunetan	283	37		
Jaiegunetan	1.875	347		
Ohiz kanpokoak	10	1		
Guztira	46.189	1.625	35.855	1.120

Hau da, 2010. urtean 1.120 hartzaile izan ziren, batez besteko orduak 32 izan zirela; 2009an, berriz, 1.625 hartzaile izan ziren, eta batez besteko ordu kopurua 28 izan zen.

Pertsona berak aparteko ordu mota desberdinetakoen ordainsariak jaso ditzake; horregatik, hain zuzen, enplegatuen arabera aztertu ditugu orduak: 572 pertsonen artean egin dituzte 35.855 orduak. Horietatik 189 pertsonak urtean 50 ordu baino gehiago egiten dituzte, eta hauen artean 25.847 ordu sartu dituzte, ordu guztien ehuneko 72; horietatik, hala ere, 26 pertsonak 250 ordutik

gora sartzen dituzte; pertsona hauetatik udaltzainak dira gehienak.

VII.3.2. Udalbatzako kideen ordainsariak

Udalbatzako kideen ordainsarien kontu-ikusketza egin da. Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko martxoaren 18ko akordioz erabaki ziren ordainsariak, eta 2009an eta 2010ean aldatu gabe geratu ziren; azkeneko urte horretan, hala ere, 12/2010 Legeak agintzen duen beherapena aplikatu zitzaizkien ordainsari horiei. Ondoko koadroan azaltzen dira 2010. urtean indarrean zeuden ordainsariak.

	Ordainsariak 12/2010 legea aplikatu ondoren			Beharpena (%)
	Ordainsariak 2008ko Gobernu Batzarraren erabakia	Urteko ordainsaria urte osorako beharpenarekin	2010eko ordainsaria ekainetik aurrerako beharpenarekin	
Alkatea	71.800	65.339	68.031	9
Zinegotzi ordezkaria (lanaldi eskusiboa)	55.609	51.161	53.015	8
Zinegotzi ez-ordezkaria (lanaldi eskusiboa)	36.169	34.000	34.904	6
Parte hartzeagatiko dietak (hilabeteko 13 gehienez)	19.716	18.731	19.142	5
Udal talde politikoko bozeramailea	7.200	6.696	6.906	7

PFEZ zergari dagokionez, % 30eko salbuespen bat egitea erabaki zen bere garaian, araudiari jarraituz. 2007an salbuespen hori zazpi urtetan linealki kentzea erabaki zen (urtean % 5), eta soldatak beste horrenbestez jasotzea. 2009an eta 2010ean soldatak bere horretan uztean, salbuespenaren beharpena ere atzeratzea erabaki zen, eta horrela 2010ean % 25ekoa zen salbuespena.

Parte hartzeagatiko dieten kontzeptuaren barruan osoko bilkuretan, batzordeetan eta bilkura eta batzorde horietako lanak prestatzeko udal taldeetan parte hartzea sartzen da.

Bildu den lagina aztertuta, udalbiltzarkideei ordaindutako ordainsariak adierazitako irizpideetara egokitzen direla ikusi da.

Udal enpresetako udalbiltzarkideek haien kontseiluetan parte hartzeagatik jaso dituzten dietak eskatu ditugu.

Hauek dira azterketa honetatik atera ditzakegun datuak:

- Zinegotziek dietak jasotzen dituzte Pamplona Centro Histórico, Animsa, Mercairuña eta Comiruña enpresetan.

- Zinegotziek ez dute dietarik jasotzen Asimec enpresan, ez Gayarre fundazioan ez Erruki Etxea fundazioan.

- 27 zinegotzietatik, zazpi ez dute dietarik jasotzen enpresa publikoetatik.

- 2010eko ekainetik aurrera % 5eko beharpena aplikatu zen enpresen dietetan.

I. Eranskinean ageri dira Udalbatzarreko kideen ordainsari gordinak. Jasotako dietei dagokionez, 13.331 - 1.826 euro bitartekoak dira kopuruak.

VII.3.3. Azterketa aktuariala

Udalak Iruñeko Udaleko Montepioko pentsioek hartu dituzten konpromisoen balorazio finantzario-aktuarial bat enkargatu zuen.

Azterketa hori 928 funtzionario pasiboz eta 374 funtzionario aktiboz osatzen den populazio baten gainean egin da. Kontuan hartu behar da Gizarte Aseguruen sistema orokorrean sartzan direla orain langileok.

Indarrean dagoen araudia eta abiapuntutzat hartu diren premisak (erretiratzeko adina, etorkizunean izan daitezkeen balio-handitzeak...) kontuan harturik, betebeharrak guztira 600 milioi euro ingurukoak izan daitezkeela ateratzen da, 2010etik 2019ra bitartean urteko 22 milioi inguruko banaketa batekin.

Langileei buruzko kapitulu honetan egindako lanaren ondorioz, hau aholkatzen dugu:

- *22010ean lanpostu-aldaketak egiteko hasi zen prozedura betetzen jarraitzea, eta dagokion plantilla-aldaketa egitea.*

- *Aparteko orduak egiteko baimena ordu horiek egin baino lehen ematea, edo, hala ezin denean, orduak egin berriak direnean.*

- *Aparteko orduak gutxitzeko modurik dagoen aztertzea, urtean 50 ordu baino gehiago sartzan diren hainbat kasu daude-eta.*

- *“Ogasun publikoa, PFEZen hartzekodun” eta “Funtzionarioen arreta” kontuen saldoak, aurreko urteetakoak, erregularizatzea.*

- *Udalbiltzarkideentzat espediente pertsonal bat prestatzea eta kontratatupeko langileen espe-*

dienteak digitalizatea bukatzea, langile finkoen espedienteekin egin den bezala.

- *Organigrama prestatzea.*

VII.4. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZU- AK EROSTEA

Kapitulu honetako betetze-maila 72,9 milioi eurokoa da, behin betiko aurrekontuaren ehuneko 94, 2009an izan zena baino ehuneko bat gutxiago.

Espediente multzo baten artetik hartutako laginak erakusten duenez, alor honetan aplikatu beharreko araudiari jarraikiz egiten dira oro har inbertsioak.

Gure aholkua:

- *Beti eskatzea baldintza-orrietan izandako jarduerari buruz eskatzen diren txosten edo memoriak.*

Udaltzainen jantziak

Lan hau egiten ari ginen bitartean, Iruñeko Udaleko Comisiones Obreras sindikatuaren posta elektronikozko mezu bat jaso zen Nafarroako Comptos Ganberan gai honi buruz; mezu horretan Probintziako Lan Ikuskapen eta Gizarte Segurantzaren aurrean Udaltzaingoarentzako laneko jantzi-hornidurari zegokionez aurkeztutako salaketa zetorren; horregatik, hain zuzen, 2007-2010 bitarteko Jantziteriari dagokion kontusaila (221050) eta Udaltzaingoaren Jantziteriaren kontusaila (60-22000-221050) eta plantillaren bilakaera aztertu dira, eta emaitza hauek atera dira:

Betetzea	2007	2008	2009	2010	Guztira	2007- 2010 bilakaera	2009-2010 bilakaera
221050 Kontusaila Jantziteria	517.762	465.348	404.721	341.320	1.729.152	% -34	% -19
60-22000-221050 Kontusaila, udaltzaingoaren jantziteria	274.459	222.155	195.847	143.916	836.376	% -48	% -36
Udaltzaingoaren jantziteria / Jantziteria osoa	% 53	% 48	% 48	% 42	% 48		
Udaltzaingoaren plantilla							
Beteak	350	361	381	399	-	% 14	% 5
Udaltzain bakoitzeko jantzitan egiten den gastua	784	615	514	361		-54 %	% -30

Koadro honetatik ondorioz atera daitekeen bezala, 2007-2010 bitartean, 1,7 milioi euroko gastua egin zen jantzitan; horietatik ia erdia udaltzainen jantzietarako da. Zenbateko horietan urrituz joateko joera nabari da, 2007an udaltzain bakoitzeko 784 euroko gastua izatetik 2010ean 360 euroko gastua izatera aldatu baita.

Udalak jakinarazi digunez, 2007an erabat aldatu ziren udaltzainen jantziak, eta 2008an kontusail horren kudeaketa aldatu zen, Ondarearen Zerbitzuaren eskuetatik Herritarren Seguratasuneko Sailaren eskuetara aldatu baitzen.

VII.5. GASTU FINANTZARIOAK

Bi milioi euroko betetze-maila izan du, hau da, behin betiko aurrekontuaren % 47; % 23 jaitsi da aurreko ekitalditik. 2009koekin alderatuz interes motak 2010ean izan zuten beherakada izan da gastu finantzarioen urritze horren arrazoia.

VII.6. TRANSFERENTZIAK

Transferentzia arruntak 12,3 milioi eurokoak izan dira, hau da, behin betiko aurrekontuaren % 95; 2009ko ekitaldiarekin alderatuta % 25eko emendioa izan da.

Emendio hori ANIMSArekiko harremanak erregistratzeko kontabilitate-irizpideak aldatu direlako izan da batez ere, II. kapituluaren kontabilizatzen baitziren aurreko ekitaldietan.

Kapital-transferentziak 10,3 milioi eurokoak izan dira, hau da, behin betiko aurrekontuaren % 78; 2009ko ekitaldiarekin alderatuta % 24eko emendioa izan da. Emendio hori udal sozietateetarako ekarpenetan izan den beherakada baten eta, Iruñeko Parte Zaharrean hiri-hondakinak biltzeko sistema finantzatzeko akordioaren ondorioz, Mankomunitateari egindako transferentziak handitzearen ondorioz izan da. Egin den lagin-hautaketak erakusten duenez, ongi bete dira, oro har, aginduta dauden prozedurak. Nolanahi ere, puntuok azpimarratu nahi genituzke:

• Udalaren eta ANIMSaren arteko harremanetan izan den aldaketa; kontratu-bidezko harreman soila izatetik sozietate horrek gauzatzen duen jardueraren finantza-babesa izatera aldatu baita. Babesezko harreman hori are argiago agertzen da, hala ere, transferentzia arruntak ordaintzeko moduan, “sozietatearen funtzionamenduaren finantzaketa osoarekin egokitzen baita”. Kapital-transferentziek onuraduna Udala den proiektu jakin batzuk bereziki finantzatzeko izan behar dute, titularra sozietatea bada ere.

Esan beharra dugu ezen gastu arruntei erantzuteko transferentziek ezin izan dezaketela zuzeneko ordainik eta ezin dutela fakturretan oinarritu (eta horrenbestez zeharkako zergen mende egon) eta, hala badaude, bigarren edo seigarren kapituluan erregistratu beharko lirakeela, beren izaeraren arabera. Gure iritzian, alderdi hauek guztiak ez dira argi eta garbi definituta geratu funtzionamendu-eredu berrian.

• Alde Zaharreko zabor-bilketa finantzatzeko akordioa egin da Mankomunitatearekin; 13,3 milioi euroko kostua izan du guztira, eta Udalak eta Mankomunitateak erdi bana finantzatu dute; datozen 10 urteetan 5,5 milioi euroko ustiaketa-gastua izango duela aurreikusita da: Sei helburu ditu akordio horrek:

- a) Kostuak gutxitzea
- b) Zabor-ontziek hartzen duten leku publikoa libratzea
- c) Eguneko eta gaueko zarata gutxitzea
- d) Usaina kentzea
- e) Auzotarren aldetik zaborrak ateratzeko ordu mugaturik ez izatea.
- f) Higiene-maila hobetzea.

Helburu horietan lehenengoak du bereziki eduki ekonomikoa eta, obra 2011eko urtarrilean jaso zenez, aztertu beharra dagoela uste dugu, baina ez dakigu seguru aurretiaz kostuen azterketarik eginda ote zegoen. Hondakin-bilketako sistemaren ustiaketa Iruñerriko Mankomunitateari dagokion eginkizuna da.

VII.7. INBERTSIOAK

Kapitulu honetako betetze-maila 82,3 milioi eurokoa izan da, behin betiko aurrekontuaren % 63, aurreko ekitaldian izan zena baino % 18 gutxiago.

Honako kontusail hauek aztertu ditugu:

	Obren zenbatekoa	2010an bete	Oharrak
Media Luna igogailua	1,37	0,88	E Planaz finantzatua
Labrit Pasabidea	1,20	1,20	E Planaz finantzatua
San Bartolome gotorlekua	1,92	1,54	E Planaz finantzatua
Sta. Klara harresia	3,26	2,31	Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak eta Sustapenak finantzatua
Kondestablearen Jauregia	13	3,76	Prezioen berrikusketari eta Nafarroako Kontseiluaren akordioari dagokio
Sanferminetako zentroa	-	2,17	Edukien esleipena: 6,5 milioi

Lehenengo hiru obrak Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtsak finantzatu ditu (E Plana). 2010ean bete ez ziren kopuruak 2011n bete ziren.

Santa Klara harresia Sustapeneko Ministerioak (% 25) eta Ondarea Zaintzeko Fundazioak (% 75) finantzatu dute.

2010ean Kondestablearen Jauregiko eraikineko obrarako egindako ordainketak prezioen berrikusketako ziurtagiriei (421.307 euro) eta Nafarroako Kontseiluaren txostenaren ondoren emandako azken ziurtagiriari dagozkio.

Egin den kontu-ikusketaren ondorioz, indarrean dagoen araudian agintzen diren tramiteak bete direla ikusten da oro har.

Sanferminetako zentroa.

Kudeatzeko zaila eta denboran luze joango den proiektu bat da; aurreko ekitaldiei buruzko txostenetan ere egin izan ditugu zenbait iruzkin proiektu honi buruz.

Eraikitze lehenengo proiektua 2002an esleitu zen, eta Vianako Printzea Institutuak arbuatu egin zuen, kokatzeko lekua egokia ez zela iritzirik. 2009an aldatu egin zen kontratua, proiektua beste

leku batean, Medialunako Parkean, lehen suhiltzaileen parkea zegoen lekuan, egiteko.

2009ko azaroan erakusketako edukiaren kontratua esleitu zen, 6.560.241 eurotan.

2011ko abenduan, Nafarroako urte horretako Aurrekontu Orokorretan horretarako kontusailik ez

zegoenez, eta 2012ko ekitaldirako finantzaketarako aurreikuspenik ez zegoenez, erakusketako edukiari buruzko kontratua etetea erabaki zen.

Ondoren proiektu honen egoera ekonomikoa-ren laburpen bat aurkezten dugu.

Obra	Proiektua	Kontratua	31-12-2010ean egina
Parkea eraistea		133.528	133.528
Hasierako proiektua		925.559	(deuseztatu egiten da)
Hasierako proiektua (aldatzea)		462.779	462.779
Kokaera berriaren proiektua		684.943	684.943
Obra-zuzendaritza		477.000	93.000
Guztizko partziala		1.758.250	1.374.250
Eraikina jasotzea	13.156.559		

Edukiak	Kontratua	31-12-2010ean egina
Oinarrizko proiektua	646.000	646.000
Gauzatzeko proiektua	985.707	985.707
Ekoizpena	2.299.983	-
Ezarri eta martxan jartzea	2.628.551	-
Guztizko partziala	6.560.241	1.631.707

Suhiltzaileen parke berria eraikitzea	Kontratua	31-12-2010ean egina
Proiektua eta obra-zuzendaritza	112.000	112.000
Eraikuntza	2.178.677	2.178.677
Guztizko partziala	2.290.677	2.290.677

Hau da, 2010eko abenduan 8.318.491 euroko kontratuak zeuden sinatuta, eta horietatik 3.005.957 eurorenak zeuden beteta.

Eraikina jasotzeko proiektuak 13.156.559 euroko aurrekontua zuen abiapuntu gisa, baina ez da lizitaziorik egin. Beste alde batetik, 2.290.677 euro gastatu dira suhiltzaileen parke berria eraikitzen.

2011ko ekitaldian –ekitaldi honetako kontuak itxi gabe daude oraindik– 700.000 euro inguruko gastuak daudela ikusi dugu, erakusketako edukiaren kontratuari dagozkionak.

VII.8. TRIBUTU BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Tributu bidezko diru-sarreretan betetze-maila hauek izan dira:

	Euroak, milioitan		
	Aitorturiko eskubideak	Behin betiko aurrek. betetzea (%)	2009koarekiko aldea
Zuzenekoak	50,8	103	1
Zeharkakoak	6,5	93	- 25
Tasak eta beste	26,7	90	- 17
Guztira	84,0	98	- 8

Kontzeptu nagusiak –kapitulu hauetan aitortutako zenbateko osoaren hiru laurdenak hartzen dituztenak– hauek dira:

	Euroak, milioitan	
	2010ean egina	2009ean egina
Hirilur-kontribuzioa	25,6	25,5
Zirkulazioa	9,1	9,1
Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	8,4	9,3
Lurren balio-gehikuntza	6,3	4,4
EIOZ	6,5	8,7
ORA	7,7	7,8

Krisiaren ondorioz EIOZen eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordainarazpenetan beherakada bat izan dela ikusten da; beherakada horiek lursailen balioek, ondareen eskualdaketak ikertzeko eta kontrolatzeko prozedurak eraginda batez ere, izan duten gorakadak berdintzen ditu partez.

Bingoko sariak kargatzen dituen zergari dago-kionez, beren aitortpenak egiteko obligazioa betetzen ez zuten zergadunei zigor-espeditenteak abiarazi zaizkiela ikusi dugu.

Egin den lagin-hautaketak erakusten duenez, zerga bidezko diru-sarreraren ordainarazpenari dago-kionez ongi jokatu da, oro har.

VII.9. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITALEKOAK

Transferentzia arruntek 96,1 milioi euroko zenbateko aitortua dute, behin betiko aurrekontuaren % 99; aurreko ekitaldikoekin alderatuta % 5,8ko emendioa izan dute.

	Euroak, milioitan
Nafarroako tributuetako partaidetza	55,4
Hiriburutza Agiria	22,1
Eskubide pasiboen finantzaketa	6,0
Enplegurako eta Iraunkortasunerako Estatuko Funtsa	4,2

Kontusail nagusiak Nafarroako Gobernutik heldu dira, ikusten denez.

Kapital-transferentziak 46,4 milioi euroko zenbateko aitortua dute, behin betiko aurrekontuaren % 74; aurreko ekitaldikoekin alderatuta % 27ko urritzea izan dute. Urritze hori Estatuak E Planeko

obregatik egiten zituen transferentziak eta Hirigintzako Gerentziaren hirigintza-kuotak urritu izanak eta Nafarroako Gobernutik hartuak emendatu izanak eragin du.

Kontusail garrantzitsuenak honakoei dagozkie:

	Euroak, milioitan	
	2010ean egina	2009ean egina
Estatuaren transferentziak	16,6	29,5
Naf. Gob. Transferentziak	11,4	7,6
Hirigintzako Gerentziaren obren kuotak	18,4	24,2

Urte-bukaerako kontabilitateko idazkun batzuetan desadostasun batzuk daudela ekitaldi honetan zenbait kontusail Nafarroako Gobernuari eta Udalari esleitzerakoan. Horrez gainera, Udalak bi bider kontabilizatu du 14.400 euroko transferentzia

arrunt bat eta 145.440 euroko kapital-transferentzia bat; horrek eragina du ekitaldiaren emaitzan eta diruzaintza-gerakinean. Jakinarazi zaigunez, 2011n zuzendu da kontabilizazio hori.

VII.10. ERAKUNDEAK ETA ENPRESAK

Erakunde autonomoen, haur-eskolen eta hiri-gintzako udal gerentziaren kontuak; fundazioen, Gayarre Antzokia eta Erruki Etxea Fundazioen kontuak, eta udalak partaidetzaren gehiengoa duen enpresen kontuak –ANIMSA, Asimec, Mercairuña, Comiruña eta P.C.H.– profesional independenteek ikuskatu dituzte eta ikuskatzaile horiek aldeko iritzia agertu dute kasu guztietan.

Gayarre Antzokia Fundazioaren kasuan eta ANIMSA eta Mercairuña enpresen kasuan, kontu-ikuskatzaileak entitate horien aldetik legezkotasuna betetzeari buruz berriaz eginiko lan bat ere ageri da, (Hirigintzako Gerentziaren kasuan, Haur Eskolen kasuan, PCHren kasuan eta Asimecen kasuan paragrafo bat gehituta). Kasu guztietan, aldekoa da emaitza.

Alderdi ohargarrienen artean nabarmentzekoa da 2010. urtean, Hirigintzako Gerentziak, Comptos

Ganbera honen aholkuei jarraituz, 34 industrialderen kontuen kontabilitate-itxiera egin zuela.

VII.11. HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA 2010ean

Iruñeko Udalak bere hornitzaileei ordainketak egiteko 2010ean hartu duen epearen azterketa bat egin du.

Kalkuluak egiteko, bi zatitan banatu da epea. Bat faktura iristen denetik kontabilizatzen den arterainokoa, "O" epea deitu duguna, eta bestea faktura kontabilizatzen denetik ordainketa egiten den arterainokoa, "P" deitu duguna.

Erregistroko data 2010 urtekoa duten eta ekitaldi horretan bertan ordaindu diren fakturen kopurua 14.634 da. Faktura horien guztien zenbateko bateratua 97,95 milioi eurokoa da.

Betebeharra aitortzeko (O fasea) eta ordaintzeko (P fasea) batez besteko epeak hauek dira:

Batez besteko O epea (Kontabilizazioko data O - Sarrerako data)	31,53 egun
Batez besteko P epea (Kontabilizazioko data P - Kontabilizazioko data P)	10,04 egun
Batez besteko ordainketa-epea (Ordainketa data - Sarrera data)	41,57 egun

Alorka hartuta, koadro honetan azaltzen dira batez bestekoak:

Arloa	Faktura kopurua	Fakturen zenbateko bateratua	O Epea	P Epea	Epe bateratua
Alkatetza Kabinetea	189	106.280	29	11	40
Udal gerentzia	486	2.093.031	45	11	56
Toki ogasuna	2.414	6.820.107	33	9	41
Lehendakaritza	367	1.030.604	29	11	39
Herritarren parte hartzea eta teknologia berriak	675	2.078.017	24	12	37
Hirigintza eta Etxebizitza	249	1.337.336	23	12	35
Garapen iraunkorra	817	1.919.281	35	9	44
Hiri-kontserbazioa	2.959	25.529.157	31	9	41
Kultura	1.776	7.364.512	29	11	40
Herritarraren Segurtasuna	840	2.634.578	29	9	38
Mugikortasuna	121	5.936.691	35	10	45
Gizarte Ongizatea eta Kirola	1971	9.518.359	37	10	46
Hezkuntza eta Gazteria	960	4.246.546	25	10	36
Merkataritza, turismoa eta berdintasuna	444	1.436.497	22	15	37
Proiektu estrategikoak	366	25.903.547	39	11	50
Guztira	14.634	97.954.544	32	10	42

Ordainketarako batez besteko epea luzeena duen alorra Udal gerentzia da (56 egun batez beste) eta hurrengoa Proiektu Estrategikoa (50 egun batez beste). Ordainketarako eperik laburrena duen alorra Hirigintza eta Etxebizitzarena da; 35 eguneko epea izaten du batez beste.

Faktura gehien kudeatu dituzten alorrak Hiri-kontserbazioa, Gizarte Ongizatea eta Kirola eta Toki ogasuna izan dira. 2010ean erregistratu eta ordaindutako faktura guztien % 50 kudeatu dute hiruren artean.

Fakturen alorkako guztirako zenbatekoak aztertzen badira, Proiektu Estrategikoen alorra da zenbatekorik handiena duena, 25,9 milioi euro, eta haren ondoren Hiri Kontserbazioko alorra, 25,5 milioi euroekin. Bi alor horien artean fakturatu den kopuru osoaren % 52 kudeatzen dute.

Azkenik, faktura kopurua eta ordainketa aldiko ordainkizun osoa atera ditugu, egun kopuruka banaturik, eta koadro hau atera da:

	Faktura kopurua	Zenbatekoa	Gutzizkoaren gaineko %	Zenbatekoa/guztira (%)
Ordainketa-epea >= 100	347	4.421.703	% 2	% 5
Ordainketa-epea >= 60 – <100	1.253	13.606.201	% 9	% 14
Ordainketa-epea >= 40 – <60	4.522	28.868.368	% 31	% 29
Ordainketa-epea < 40	8.512	51.058.272	% 58	% 52
Guztira	14.634	97.954.544		

Faktura guztien % 59 40 egun baino lehen ordaintzen dira eta % 31 40 egunetik 60 egunera bitarteko epe batean ordaintzen dira.

Ondorioz atera dugu, beraz, Uztailaren 5eko 15/2010 Legeak, merkataritza eragiketen beran-kortasunaren aurkako neurriei buruzkoak agintzen duena bete dela.

VII.12. AURREKONTU-BETETZEAREN BILAKAERA 2001-2010

Iruñeko Udalaren azkeneko hamar ekitaldieta-ko (2001-2010) aurrekontuen likidazio bateratuen

azterketa bat egin dugu, izan den jarduera aztertu eta etorkizunerako proiektiorik egin zitekeen begiratzeko.

Txosten honen bigarren eranskinean aurkezten dira ekitaldi horiei dagozkien aurrekontuen likidazioak, kapitulu ekonomikoka banatuta, aurrekontuen emaitzak eta aurrezki gordinak eta garbiak. Ekitaldi horietan izandako jardueraren adierazle zerrenda bat erakusten duen koadro bat ere sartu da.

Ondoren datu horien laburpen bat aurkezten dugu:

Emaitzak	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	GUZTIRA
Em. arrunta	10,1	17,2	12,8	10,9	11,5	21,9	9,5	8,4	14,0	11,9	128,1
Kapital em.	-19,0	7,2	-26,7	-23,4	9,2	-45,3	-68,5	2,0	-31,5	-41,2	-237,1
Em. ez finantzarioa	-8,9	24,5	-13,9	-12,6	20,7	-23,4	-59,0	10,4	-17,5	-29,3	-109,0
Em. finantzarioa	-1,2	-2,1	-6,3	16,4	-1,3	-1,5	11,9	12,1	28,5	-4,4	52,0
Aurrekontu-em.	-10,1	22,4	-20,2	3,8	19,4	-24,9	-47,0	22,4	11,0	-33,8	-57,0
Aurrekontu-em. doitua (+/- Desbideratzeak)	-4,0	-1,2	-2,8	3,3	-5,1	-20,5	-6,4	8,3	19,4	-28,2	-37,2
Aurrezki gordina	11,5	18,4	13,8	11,8	12,4	23,0	11,2	11,2	16,7	13,9	143,8
Aurrezki garbia	8,1	15,2	6,5	8,8	7,4	20,4	6,4	5,6	10,4	7,4	96,3

Adierazleak	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	Urteko batez besteko aldaketa
Zorpetze-ahalmena %	5,83	11,35	4,72	6,37	5,01	11,78	3,9	3,18	5,64	4,07	
Inbertsioaren indizea %	23,58	32,01	31,01	27,1	30,79	35,12	50,01	32,68	38,09	34,28	
Diru-laguntzekiko mendekotasuna %	47,69	46,18	55,44	46,59	37,25	42,67	59,14	48,34	52,33	60,25	
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak €	577	615	653	663	708	772	803	845	859	866	% 4,60
Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrera €	300	336	356	350	389	383	416	423	459	425	% 3,94
Biztanle bakoitzeko finantza-zama €	18	17	39	15	26	14	24	29	32	33	% 7,01
Biztanle bakoitzeko zor bizia €	220,13	207,23	172,00	265,00	256,54	245,64	308,15	366,28	509,62	489,49	% 9,29

Hauek dira azterketa honetatik atera ditzakegun datuak:

- Emaizta arrunta positiboa da ekitaldi guztietan. Diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino handiagoak izan direla esan nahi du horrek. Aztertu dugun aldi horretan 128 milioi eurokoa izan da emaitza hori.

- Kapital-eragiketak (inbertsioak eta kapital-transferentziak) 845 milioi eurokoak izan dira; kapital-sarrerak, berriz, 608 milioi izan dira; horrek, beraz, 237 milioi euroko finantzaketa-beharrak daudela esan nahi du.

- 237 milioi horiek emaitza arrunteko 128 milioiekin eta emaitza finantzarioko 52 milioiekin finantzatu dira. Falta diren 56 milioiak kreditu bidezko finantzaketa-eragiketez osatu dira.

- Ekitaldi guztietan aurrezki gordina eta aurrezki garbia positiboak dira biak; esan nahi baita udalak gehiago zorpetzeko ahalmena izan duela ekitaldi horietan.

- Urte guztietan daude ildo nagusia hausten duten ohiz kanpoko zenbait eragiketa. 2001eko urteko inbertsioak, esate baterako, bereziki handiak dira gainerako urteetakoekin alderatuta, eta geroago 2007 urtean berriro handitzen dira. 2002an inbertsioak besterentzeagatiko diru-sarrerak oso handiak dira, eta orobat 2005ean ere. 2006an gainerako urteetan ez bezalako ondarearengatiko diru-sarrerak daude. Lau ekitalditan ez da mailegurik hartu. Aldakortasun horrek oso zaila bihurtzen du jokaera-irizpide orokor batzuk ondorioztatzea.

- Hala eta guztiz ere, nahiko jokaera erregularra ikusten da langile-plantillari dagozkion gastuetan, ondasun-erosketetarakoetan eta zuzeneko zerga bidezko sarreretan (2. eranskinean ikus daitkeen bezala).

- Transferentzia arruntengatiko sarreretan gorako joera bat ikusten da aldi honetan guztian zehar, eta aldi horretako diru-sarrera arrunt guztien ia erdia dira.

- Transferentzia arruntengatiko sarrerek horrenbesteko garrantzia izateak udalaren jarduerak beste erakunde batzuen erabakiekiko mendekotasun handia duela esan nahi du, Toki Ogasunetako Funtsak duen garrantziagatik batez ere.

- Gastu arruntak % 5eko erritmo batez hazi dira aldi horretan; sarrerek berriz % 4,8ko hazkunderitmoa izan dute. Gastuen kapituluetan ondasun- eta zerbitzu-erosketena izan da gehien hazi dena (% 6,85); sarrerei dagokienez, berriz, transferentzia arruntena izan da hazkunderik handiena izan duena (% 5,72).

- 2010etik aurrera azkeneko hamar urte horietako likidazioetatik ondorioz ateratzen diren batez besteko datuak aldatuko ez balira, gehiago zorpetzeko ahalmena izango litzateke.

- Une honetan oso zaila da 2011ko aurrekontuaren emaitza ezagutu gabe aurrera begira aurreikuspenak egitea, urte horretan larriagoa bilakatu baita krisi ekonomikoa eta Toki Ogasunerako Funtsa urritu egin baita. Horrez gainera, Iruñeko Udala 22 milioi gehiago jasotzen ditu Hiriburutza Agiria dela-eta. Transferentziek diru-sarrera arruntetan duten garrantzi horrek eragiten du hauetan edozein aldaketa gertatzen bada arras alda litezkeela proiektzioa egin nahi den ekitaldiko datuak.

- Krisi ekonomikoa delarik eta, horrenbestez, egonkortasun gutxi delarik eta kredituak murrizten direlarik, oso ongi aztertu beharko litzateke egiten diren inbertsioak emaitza korronteko saldo positiboaz eta zenbateko oso-oso finantzatzen duten diru-laguntzez baliatuz egiteko posibilitatea. Alde horretatik, kontu handiz aztertu beharko litzateke Toki Ogasunetako Funtsaren diru-laguntzez inbertsio gutxiago, baina finantzatzen direnak ehuneko ehuneko finantzatzea komeni ez den.

Txosten hau Jesús Muruzabal Lerga kontu-ikuskatzaile jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak beterik.

Iruñean, 2012ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Izen-abizenak	Udaletik jasotakoa guztira	Pamplona Centro Histórico	ANIMSA	Mercairuña	Comiruña	Dieten gatik guztira	GUZTIRA
ALONSO IBARRA, FERMIN JAVIER	53.015		2.188			2.188	55.202
ALZINA DE AGUILAR, VALENTIN CARLOS	19.142				2.606	2.606	21.748
ARAMBURU BERGUA, ISABEL	41.530		2.188			2.188	43.717
AYESA MERINO, JAVIER	19.142	3.348				3.348	22.490
BARCINA ANGULO, MARIA YOLANDA	68.031	3.348	2.188	5.189	2.606	13.331	81.362
BARKOS BERRUEZO, MIREN UXUE	19.142						19.142
CABASES HITA, IÑAKI	19.142		2.188	5.189		7.377	26.519
ELIZALDE URMENETA, ANA MARIA	53.326						53.326
ESPORRIN LAS HERAS, MARIA TERESA	41.599			5.189		5.189	46.788
GASTESI ZABALETA, MIKEL	19.142						19.142
GOMEZ LOPEZ, ITZIAR	34.904				2.606	2.606	37.510
IRIBAS SANCHEZ DE BOADO, JOSE	60.056			5.189		5.189	65.246
LOPEZ RODRIGUEZ, JOSE JAVIER	31.809						31.809
LORENTE PEREZ, FRANCISCO JAVIER	31.871		1.826			1.826	33.697
MAULEON ECHEVERRIA, JOSE MARIA	34.904		2.188			2.188	37.091
MORI IGOA, JORGE AGUSTIN (*)	54.079				2.606	2.606	56.685
NAVARRO IZCO, ROSA ANASTASIA	19.142				2.606	2.606	21.748
PALACIOS SUREDA, EDUARDO	19.201						19.201
PINEDA ABEL DE LA CRUZ, ANA	53.015				2.606	2.606	55.621
POLO GUILABERT, IGNACIO	69.158				2.606	2.606	71.764
PRIETO SAENZ DE TEJADA, MARIA PAZ	53.015				2.606	2.606	55.621
PUEYO DANSO, MARINA (*)	57.495						57.495
ROMEO RUIZ, ARITZ	19.142				2.226	2.226	21.367
SANCHEZ DE MUNIAIN LACASIA, JUAN LUIS	53.015						53.015
SANZ BARRIOS, MARIA CRISTINA	34.904				2.606	2.606	37.510
TORRENS ALZU, FRANCISCO JAVIER	19.142	2.207				2.207	21.348
VALL VIÑUELA, EDUARDO	34.904		2.549		2.606	5.155	40.059
Guztira	959.670					73.262	1.032.932
2010eko dietak guztira		380	380	382	380		
Dieten zenbatekoa beherapena egin ondoren		361	361	362	361		

(*) Funtzionario-soldata gehi parte hartzeagatiko dieta jasotzen dute.

2.ERANSKINA Aurrekontuak betetzearen bilakaera (2001-2010)

	Euroak, milioitan										
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	GUZTIRA
ZUZENEKO ZERGAK	35,4	36,6	38,7	39,7	42,4	45,2	46,5	47,2	50,3	50,8	432,9
ZEHARKAKO ZERGAK	4,3	7,7	8,2	7,5	8,0	5,1	6,0	7,1	8,8	6,5	69,3
TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK	17,6	19,4	20,9	19,8	24,7	24,7	28,6	29,2	32,1	26,7	243,7
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	58,3	65,3	65,9	68,1	70,5	74,3	80,0	86,3	90,9	96,1	755,5
ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK	4,0	4,8	3,7	3,0	2,8	23,7	4,9	5,3	2,4	2,7	57,4
A DIRU-SARRERA ARRUNTAK GUZTIRA	119,7	133,7	137,5	138,1	148,5	173,0	166,1	175,0	184,4	182,8	1.558,8
LANGILEEN GASTUAK	61,1	63,6	66,5	67,1	71,3	72,7	76,3	81,0	84,4	83,6	727,7
ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK	40,2	44,3	49,2	51,1	56,4	70,5	71,1	73,8	73,5	72,9	603,0
GASTU FINANTZARIOAK	1,3	1,1	1,1	0,9	0,9	1,2	1,7	2,8	2,7	2,0	15,7
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	7,0	7,5	7,8	8,2	8,4	6,8	7,4	9,0	9,8	12,4	84,2
B GASTU ARRUNTAK GUZTIRA	109,6	116,5	124,7	127,3	136,9	151,1	156,6	166,7	170,4	171,0	1.430,7
C EMAITZA KORRONTEA (A-B)	10,1	17,2	12,8	10,9	11,5	21,9	9,5	8,4	14,0	11,9	128,1
INBERTSIO ERREALAK											
BESTERENTZEA	10,1	37,2	3,5	7,4	59,1	21,6	9,9	37,5	13,1	5,1	204,5
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	57,8	26,5	29,3	18,4	13,6	16,7	83,4	47,9	63,7	46,4	403,6
D KAPITAL SARRERA GUZTIRA	67,9	63,7	32,8	25,8	72,7	38,3	93,2	85,4	76,8	51,5	608,2
INBERTSIO ERREALAK	84,4	51,9	53,0	43,2	58,4	77,4	151,2	71,7	100,0	82,4	773,8
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	2,5	4,5	6,5	6,0	5,1	6,2	10,5	11,6	8,3	10,3	71,5
E GASTUAK, GUZTIRA	87,0	56,4	59,5	49,3	63,5	83,6	161,7	83,4	108,3	92,7	845,3
F KAPITAL-EMAITZA (D-E)	-19,0	7,2	-26,7	-23,4	9,2	-45,3	-68,5	2,0	-31,5	-41,2	-237,1
G EMAITZA EZ FINANTZARIOA (C+F)	-8,9	24,5	-13,9	-12,6	20,7	-23,4	-59,0	10,4	-17,5	-29,3	-109,0
FINANTZA AKTIBOAK	1,3	1,3	1,4	1,6	1,7	1,9	2,0	2,1	2,1	2,3	17,7
FINANTZA PASIBOAK	1,0	0,0	0,0	20,0	2,8	0,0	15,0	15,0	32,0	0,0	85,8
H FINANTZA DIRUSARRERAK, GUZTIRA	2,3	1,3	1,4	21,6	4,5	1,9	17,0	17,1	34,1	2,3	103,5
FINANTZA AKTIBOAK	1,5	1,3	1,4	3,2	1,7	1,9	2,0	2,3	2,0	2,3	19,6
FINANTZA PASIBOAK	2,0	2,1	6,3	2,1	4,1	1,5	3,0	2,8	3,6	4,4	31,9
G FINANTZA GASTUAK, GUZTIRA	3,5	3,3	7,7	5,2	5,8	3,4	5,1	5,1	5,6	6,7	51,5
I FINANTZA EMAITZA (H-G)	-1,2	-2,1	-6,3	16,4	-1,3	-1,5	11,9	12,1	28,5	-4,4	52,0
J AURREKONTUAREN EMAITZA (G+I)	-10,1	22,4	-20,2	3,8	19,4	-24,9	-47,0	22,4	11,0	-33,8	-57,0
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-5,4	-43,2	-25,3	-13,4	-50,8	-35,3	-5,4	-23,1	-27,1	-6,6	0,0
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	1,7	10,9	40,3	12,8	24,9	39,7	45,9	8,9	25,5	12,1	0,0
Diruzaintza-gerakinaz finantzaturiko gastuak	9,8	8,7	2,4	0,2	1,4	0,0	0,1	0,0	10,0	0,0	0,0
K AURREKONTU-EMAITZA DOITUA (J +/- Desbideratzeak)	-4,0	-1,2	-2,8	3,3	-5,1	-20,5	-6,4	8,3	19,4	-28,2	-37,2
AURREZKI GORDINA	11,5	18,4	13,8	11,8	12,4	23,0	11,2	11,2	16,7	13,9	143,8
AURREZKI GARBIA	8,1	15,2	6,5	8,8	7,4	20,4	6,4	5,6	10,4	7,4	96,3

	Urteko batez besteko aldaketa										
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Dirusarren betetze-maila	% 85,55	82,35	77,05	72,58	86,98	72,63	73,57	80,34	80,48	81,70	
Gastuen betetze-maila	% 80,41	65,39	71,92	66,23	72,68	78,01	85,31	77,77	77,64	93,35	
Kobrantzen betetzea	% 86,19	94,38	93,74	93,96	94,83	93,51	89,87	90,70	88,68	90,89	
Ordaintzen betetzea	% 79,23	86,17	82,24	84,17	85,55	79,33	73,71	81,98	87,92	79,41	
Zorpetze-maila	% 2,85	2,37	5,35	2,13	3,36	1,54	2,86	3,21	3,4	3,5	
Zorpetze-muga	% 8,68	13,72	10,07	8,51	8,37	13,31	6,76	6,4	9,04	7,60	
Zorpetze-ahalmena	% 5,83	11,35	4,72	6,37	5,01	11,78	3,9	3,18	5,64	4,07	
Langleria-indizea	% 38,68	36,12	34,67	36,92	34,57	30,53	23,61	31,76	29,7	30,93	
Inbertsio-indizea	% 23,58	32,01	31,01	27,1	30,79	35,12	50,01	32,68	38,09	34,28	
Diru-laguntzekiko mendekotasuna	% 47,69	46,18	55,44	46,59	37,25	42,67	59,14	48,34	52,33	60,25	
Biziantleak	187.645	189.364	190.937	191.865	193.328	195.769	194.894	197.275	198.491	197.488	
Biziantle bakoitzeko diru-sarrerak	€ 727	1.049	899	967	1.167	1.089	1.418	1.407	1.488	1.198	% 5,71
Biziantle bakoitzeko gastuak	€ 780	931	1.005	947	1.067	1.216	1.659	1.293	1.432	1.369	% 6,45
Biziantle bakoitzeko gastu arruntak	€ 577	615	653	663	708	772	803	845	859	866	% 4,60
Biziantle bakoitzeko tributu bidezko dirusarrera	€ 300	336	356	350	389	383	416	423	459	425	% 3,94
Biziantle bakoitzeko finantza-zama	€ 18	17	39	15	26	14	24	29	32	33	% 7,01
Biziantle bakoitzeko zor bizia	€ 220,13	207,23	172,00	265,00	256,54	245,64	308,15	366,28	509,62	489,49	% 9,29

